

53.
zk.


1997KO
MAIATZA

GEU ELKARTEAREN BATESAREKIN

gasteiz

gasteizko euskaldunen aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27



Maiatzaren 17 arte Kordoi Etxean

Tropikoetatik Siberia- Gasteiza

GEU, idazte ZORIONAK OSKORRI

"Barakaldokoa naiz eta daukat paro obrero, horregatik euskaltegira noa ni egunero..."

Oskorri taldeak duen abesti ezagunenetariko bat da. Bertan kontatzen dira gure hizkuntza ikasteko euskaldun berriok pasa behar izaten ditugun buruhaustek.

Apirilean arabarrok musika talde ospetsu hori zuzenean entzuteko aukera izan genuen gure lurraldean. Laudion, Biasterin, Gasteizen eta Agurainen eskaini zituzten kontzertuak beren 25. urteurrena ospatzeko.

25 urte eskenatoki gainean, 15 disko eta zuzeneko bikoitz bat ez da martxa makala. Haiekin Kepa Junkera trikitilaria eta Kukubiltxo antzerki taldea. Guztiak batera izugarritzko taldea osatzen zuten. Musika, antzerkia, argi jokuak eta batez ere musikarien jotzeko gogoia nahastuz ikuskari ederra eskaini zuten edozein adineko ikusentzulearentzat.

Kontzertu hauek Vital Kutxak antolatu eta lagundu zituen. Badirudi haize berri eta freskoak sartu direla Arabako Kutxan eta entitate horretako buruak euskarazko horrelako ekitaldiak bultzatzeko prest daudela. Izango al du horrek jarraipenik!

Bukatzeko, Natxo de Felipe, Anton Latxa, Bixente Martinez, Txarli de Pablo, Josu Urrejola, Juantze Aguilar eta Josu Salbideari zorionak.

Karlos Fdez. de Betoño

Tranbiari EZ!

NABARMENA da tranbiaren ustezko instalazioak interes eta kezka sortu duela hiritarrengan; egunero komunikabideetan agertzen diren iritziak dira horren froga garbia.

Ni neu tranbiaren instalazioaren aurka nago argi eta garbi. Hausnarketa sakon eta zuhurra egin ondoren, egun dudan jarrera hartzera eraman nauten hainbat arrazoi aurkitu ditut. Hona hemen horietako batzuk:

- Garraio publikoa trafikoaren arlo garrantzitsua da; hala ere, tranbiaren ezarpena ikertzean ez da trafikoaren plangintza zehatz eta osorik egin, eta hori, harrigarria eta onartezina da.

- Geldiezinezko garapen prozesuan dagoen hiri moderno eta aldakorrek bere beharretara egokitzen den garraioa behar du; tranbiak, berriz, bide eta argi indarraren zutabeen menpe dagoenez, ez du ibilbide askatasunik ez maniobra erreztasunik. Egun egokia den ibilbidea, oso denbora tarte txikian baliorik gabe geratu daiteke, eta tranbiaren kasuan, ezin da aldatu.

- Ibilbidearen zurruntasuna medio, tranbia-lineatik gertu bizi direnek baino ez diote onurarik aterako. Ezinezkoa da auzo eta gune guztietara iristea, horretarako beharko lukeen azpiegitura ezartzea garestiegi eta zailegia izango litzatekeelako.

- Tranbiaren aldekoek etorkizunera begiratzen duen garriobide moderno delako delako, baina ez da egia. Tranbia duela mende erdi baztertzaren hasi zen antigoaleko sistema da. Baztertzearren arrazoia aipatutako magultasun-eza da, tranbiak ez zuen hiri modernoaren garraioak behar duen magultasuna. Era berean, kutsadura gutxituko duenik



IRU: edorta sanz

ere ez dela egia esan behar da, egun kutsadurarik sortzen ez duten erregaiaik baitaude: gas naturala, koltza,...

- Tranbiaren ezarpena burutzeko beharrezkoak diren kable eta zutabeen sareak uste baino askoz kalte haundiagoa egingo dio hiriko paisaiari, hiriaren estetikari.

Trafikoak gure hiriri arazoak sortzen dizkiola nabarmena da: zirkulazio arazoak, kutsadura eta zarata sortu eta giroa eta gizarte-harremanak kirastzen ditu. Arazoak irtenbide eraginkor eta urgentea eskatzen du. Baina tranbia baino irtenbide zentzuzkoagoak badaude. Honako hauek adibidez:

- Lurazpiko aparkaleku sistema eratzea hiriaren erdialdean. Horrek kaleak hustu eta alperrikako trafikoa kentzea lortuko luke.

- Garraio publikoa indartu auzoetatik zentrura eta zentrutik auzoetarako trafikoa gutxitzeko.

- Garraio publiko sare eraginkorra sortu: bizia, maiztasun handia duena, ibilbide ugarikoa eta guztientzako moduko prezioan, eta kutsadurarik sortzen ez duten erregaiez ibiltzen dena.

- Bizikletaren erabilera bultzatu behar da.

Azken lau puntu horiek kontutan izandako trafiko antolaketa imaginatzen saiatu gaitzen eta ondoren, lasai eta informazio faltsuak kontutan hartu barik, pentsa dezagun zertarako behar duen Gasteizek tranbia.

Luis M. Sanchez Migo,

1997ko maiatza

2

geu idazle, karlos fdz. de b.
kolaborazioa, luis m. sanchez

3

bertsoak, alberto martinez

4

kalea mintzo: zezen Plaza

5

zurruurrak eta xuxurak

6

GASTEIZ:

- berriak, berriak, berriak
- asexoria martxan

10

Araba, 7. alaba:

- Mikel Mintegirekin
berbetan

15

KULTURA:

- IK Aren kultur astea
- Montehermosoren zai

20

Maiatzak 1, balantzea
egiteko ordua

22

KIROLAK:

'sivori', bada kantera
Kolaborazioa: 'Euskadi'



alberto martinez

DOIYUA:
ZORTZI PUNTUKOA



Ikasleen bizimodua

Askotan egon izan naiz nire
buruari eragiten
zein bizimodu ote daukagun
estimatzeko dena gehien
alde batetik liburu pila
etsamina ta hasperen
bestalde langile zein den
erraza da antzematen
sosa seinale hain zuzen
ikasle izanik dirurik gabe
bizitzen ikasi nuen
dirua dudun garai honetan
falta dut hura nabarmen

Bizimodu hau xamurra ez dela
uste dut dudala esanda
dena aitortzeko den bezalaxe
helduta daukat gaur txanda
aprobatzatuz beraien alde
egiteko propaganda
dena ez dugu parranda
hainbat gau esna emanda
buruak eginez eztanda
liburuetan erdi galduta
hobe denean eztanda
ikasi behar eta gogoa
auskalo nora joanda.

ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS
ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ
DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO,
DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAQA,
MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO, ASIER PZ. DE KARKAMO
KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:
WIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO
ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU, ASIER
PZ. DE KARKAMO

KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE
KASTRESANA, WAKI GAUNA, TXABI ARNAL
GIL, MIKEL GARMENDIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAQA, OÑATI)

25

MUSIKA: Triku, iragana,
oraina eta geroa

28

HAURRAK:

desiraturiko printzearen
bila



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria

GEU
GASTEIZ EUSKALDUNA

5.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92
ISSN: 1133-0988

GEU Elkartearen
babesarekin

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunon aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

berren ahotan

kalea
mintzo

zezen plaza

ETEKIN HANDIAGO ATERA NAHIAN

1.º ZER IRIZTEN DIEZU ZEZENKETEI?
2.º ZER IRUDITZEN ZAIZU ZEZEN PLAZA ERABILER A NITZEKO PABILIOIA BIHURTZE?



AZKEN BOLADAN Gasteizko zezenzaleek urduri eta kezkatu egoteko arrazoiak dituzte. Urte osoan zehar, abuztuko egun bakar batzuetan soilik erabiltzen den zezen plazari, etekin handiagora atera nahi zaio. Hau dela eta, Udalaren egitasmoa aurrera ateratzen bada, zezen plaza erabiler a nitzeko pabilioia bilaka daiteke. Tauromakiaren zaletu eta jarraitzaileek ziurtatuta ikusi nahi dituzte zezenketa-ekitaldiak eta, beldur dira aldaketa hauek guztiak ez ote duten arriskuan jarriko "Festa Nazionalaren" etorkizuna Gasteizen.



guillermo lauzirika
MUSIKARIA

1.º Niri zezenketa ez zait batere gustatzen baina zaletuak direnei ulertzen dut, bakoitzak bere iritzia ematen duelako.

2.º Ez nago ziur, alde batetik protektua ez dago erabat argi eta inbertsio handia behar du. Baina, bestalde, guztion onerako izan daitekela uste dut.



miren ugarte
IKASLEA

1.º Nire eskutan egongo balitz zezenketak betiko kenduko nituzke, basakeria hutsa iruditzen zaizkidalako.

2.º Orain Gasteizko jaietan bakarrik erabiltzen da eta horrelako pabilioi bat eginez gero, gauza gehiago antolatu ahal izango dira.



idoia mardones
LANGABETUA

1.º Beti animaliazale amorratua izan naiz eta ezin dut batzuek "kultura" deitzen duten hori ikusi.

2.º Hori antzinako proiektua dela uste dut eta pabilioi bilakatzea aukerarik onena izan daiteke.



alberto asensio
INGENIARIA

1.º Ez da nire gustokoa baina errespetu pittin bat merezi dute zezenzaleek ere.

2.º Nire ustez, sondeu bat egin beharko litzateke aukera onena zein den jakiteko eta auzokideek beren auzoan zer egiten den aukeratzeko.



patrocina fernandez
ETXEOANDREA

1.º Oso gutxitan joan naiz zezen plazara, baina joan naizen bakoitzean gustora egon izan naiz.

2.º Gauza gehiago egiteko baldin bada, pabilioi hori eraikitzeari ondo deritzot.



gerardo sanchez
BUZTINLARIA

1.º Txakur bat etxean izan nuenetik animaliak hobeto ezagutzen ditut eta zezenketaren aurka egon behar dut.

2.º Urte osoan bost egunetan bakarrik erabiltzen den leku bat gehiago aprobetxatzeko aukera ematen badu ondo; baina ez dakit.

Kazetaria: juan jose kastresana 'gutxi' Argazkilaria: joseba untzalu



azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

1997ko maiatza



oparotasuna ala lehortea

Gasteizko erdialdea kolorez jantzi zen, edo zuten. Era guztietako kolorez. Eta aldi berean usain bereziz. Dena zen txirrindularia, dena bizikletaz betetako autoa. Dena zarata eta mikrofonoen hotsa. Plaza berria gainezka. Asko eta asko bere ezaugarriak paparretik zintzilika. Haurrak bere "idoloen" sinadura edo autograforen bat nola lortu edo "txapel" bereziren bat nola eskuratu irrikitan. Helduxeagoak euskal txirrindulariak (mordoa ziren) hurbiletik ikusi eta agurtu asmoarekin.

Halaxe, apirilaren hamarreko goiza, arrakasta osoz Euskal Herriko itzuliak estali zuen.

Baina hamaika t' erdiak aldera ilara luzeak osatuz, autoak turuthotsean eta txirrindulariak pedalen eraginez, ihesari eman zioten. Agur lolore eta usainaren oparotasunari...!

Gasteizen berriz ere, betikotasuna eta eguzkia nagusitu ziren. Eguzki beroa. Kanean bizi den jendea gehiegi oharitzen ez bada ere, nahikoa dugu asfaltoa atzean uztea,

diotenez aspaldiko negurik lehorrenaren ondorio beldurgarriak egiaztatzeko: soroak arrakalatsu, mahastiak aho zabalik gora begira, ibai eta errekek itxura negargarrian, urtegiak erditik behera...

Nekazariak kexu dira eta ez da gutxiagorako ere, ura baita lurarentzako elikagairik beharrezkoena. Eta eguraldian adituen arabera, holaxe jarraituko omen dugu luzaroan. Hau etorkizuna!

Baina lasai, badugu itxaropenerako arrazoirik ere. Nafarroako Artzapezpiku adoresua den Sebastian jaunak, herrialde zaharreko apaiz guztiak otoitz bereziak egitera behartuko omen ditu, zeru zapaia errukituz, lurraren egarria asetzeko adina ur bota dezan eskatzeko. Jaunak anpara gaitzala!

Jende arruntok, bien bitartean, gora begira jarraitu behar. Hala ere eguzki jaunaren eragina ez dute denek berdin baloratzen... Kaletar eguzkizalentzeko mundiala izango da eguraldiak daraman ibilaldia... Gusto guztietarako...



XXI. mendeko iraultza

XXI. mendeari leihoak irekitzeari ekin diogunean, ateak zabaltzeko mila gau gutxi gora-behera falta zaizkio eta zenbat amets gauzatu edo ezereztatuko ote dira amaieragabeko iluntasun hau zeharkatzerakoan, adituek diote (adi-adi bizitzeak zenbat balio duen gure mundu zoro honetan) gizartearen bizimoduan aldaketa ugari izango direla. Ez dakigu gauza bera gertatuko den hirugarren edota laugarren munduan baina erantzuna irakurleak berak asma dezake.

Badirudi lan munduan eta zehazki lan tankeraz izango dela aldaketaren bat edo beste. Egun esperientzi puntualak baino ez direnak, gero eta oihartzun gehiago izango duela, hots, eguneroko lana egitea norberaren lantokira joan gabe, ia-ia ohetik altxatu gabe (hau bai benetako amets goxoa!). Posible ote da guzti hau? Dakigunez hiru gauza besterik ez dira behar honetarako: telefonoa, ordenagailua eta bakoitzaren trebetasuna. Lanera joateak sortarazten dituen arazoak oroimenerako geldituko zaizkigu, bakarrik

ilobei gauza bitxi bezala kontatzeko.

Atzean geldituko dira eguneroko esnagailuaren zurrumbiltoa belarritik gertu; gosaria prestatzen ari den bitartean, norberaren garbitasun erritua arin-arin betetzea eta, erlojuaren kontrako lasterketa bat balitz bezala, gure lan esparrura ordutik kanpo ez iristeko ahaleginak, trafikoa edo garraio publikoa arerio nagusi bilakatzen direlako. Bazkaltzeko unea heldu bezain laster presaka etxeratu edo taberneratu beharrik gabe eta zer esanik ez itzulerako bidean etxeratzeko orduan bidaiakide bezala gauaren laguntza ez izatea.

Eta ikasi? Baita ere. Gaur egun goi mailako ikasketa sistemaren hainbat eta hainbat akatsen irtenbidea izan daiteke, masifikazioarena kasu. Lekuko aurten martxan jarri den Catalunyako Universitat Oberta. Hemen ikasle guztiak jasotzen dute informazioa "Campus Virtual"-aren bidez. Errealitatea ala fikzioa? Erantzuna bietan egon daiteke.

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

EDAN • JANTEGIA



ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo
platerekin

Eguneroko Menua
Betiko kazuelatxoak

EUSKAL ABESBATZA

AZKENEAN GEUre euskal abesbatza martxan jartzea lortu dugu eta martxotik hor ari gara jo ta ke entsaiatzen; oraingoz 20 lagun bat bildu gara proiektu honen inguruan (6 gizonezko eta 14 emakumezko), baina irekita dago eta dei egiten diegu kantatzea gustokoa duten guztiei parte hartzeko. Daukagun asmoa abesbatza osatu eta borobiltzea baino ez bada ere, gauza jakina da merezi duen ezer lortzeko ahalegindu beharra dagoela. Aurrekoetan esan dugunez, ez da beharrezkoa solfeoan jakitea, ez eta aurreko esperientziarik izatea ere; horregatik komeni da lehenbailehen hastea, arian-arian ahotsa lantzen, batera abesten, arnasa hartzen, ikasten joateko. Martxan jarri ginenarako, ikasturtea nahikoa aurreraturik zegoen; hori dela, entseiu-egutegia eta lokal egokiak bilatzea ez da erraza izan, baina ekainera arte behintzat "Argos" izeneko zentroan egongo gara ostegun eta ostiralean, arratsaldeko bederatzietatik aurrera (Gasteizko hiribidea 89, atzekaldean). Anima zaitez eta deitu telefono honetara: (945) 229329.

ISAKI GAUNA

Asier Otamendi txapeldun berria

HIL HONEN 20AN BERTSOALDIA 97REN LEHEN SAIOA IZANGO DA

Asier Otamendi bertsolari gazteak irabazi zuen apirilaren 20an jokatu zen Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama bertso txapelketa. Aurtengo Bizkai-Araba txapelketan lan bikaina egin ondoren -Arriagako finalean onenekin kantatu zuen lehenengo aldiz parte hartu arren-, bera zen faborito nagusia. Asier Iriondo iazko txapeldunak bigarren postua lortu zuen.

Lehiaketa honetan jaiotzez arabarrak edota bertsotan bertan ikasitako bertsolariek soilik hartzen dute parte. Florida Kultur Etxean jokatu zen azken saioan, arestian aipatutakoez gain, Zigor Enbeita, Dani Castaño Oihane Perea eta Ricardo

Gonzalez de Durana aritu ziren nor baino nor txapela eraman nahian. Bertso onenaren saria Zigor Enbeitarentzat izan zen eta bertsolari xelebreenarena Dani Castaño eskuratu zuen.

Bestalde, maiatzaren 20an hasi eta 30 bitartean Gasteizko bertso-eskolak urtero antolatzen duen bertsoaldia 97 ospatuko da. Bertsolaritzaren inguruan antolatutako ikuskizun ezberdinek osatzen dute Bertsoaldia: tabernetako bertso saioak, bertsolarien hitzaldiak, bertso emanaldiak eta abar. Ekitaldi horien guztien berri aldizkari honetan bertan daukazu 31. orrian.

XABIER ZABALETA



EDORTA SANZ

Gaztetxea zabaldu dute

BUKATU DIRA MUINOKO ETXEAN EGINIKO LANAK

Azkenik Gaztetxearen eraberritze lanak bukatu daude. Kanpotik orain arteko itxura bera du, baina barrualdean hainbat konponketa egin dituzte. Teilatua erabat berritu dute. Horretarako teilatua egitura sendotu behar izan dute, material berriak erabiliz, eta "txapel" berria ipini diote. Hormetan ere konponketa ugari egin dituzte eta oso polita geratu da barrutik. Azkenik arraska bat ere jarri dute komunaren ondoan zegoen hutsunean. Egin-dako lan guztiaren ondoren, Gaztetxe berritua inauguratzeko festa egin zuten.

DAVID ALVEZ



EDORTA SANZ

J A T E T X E A



Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

euskaldun izan nahi dugulako
**EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI
BIHURTU DUGU!**



Zurekin 600.000
irakasle izango gara
2.300.000 ikasle
euskalduntzeko

izena eman **eek** n !

Jose

Peru 8 22 60 50 Mardones 8 26 35 40 Arana 30 25 24 00

IRVSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

Tropikoetatik Siberia-Gasteiza

APIRILAREN 19 ARTE IZANGO DA IKUSGAI KORDOI ETXEAN ARRAI TROPIKALEN INGURUKO ERAKUSKETA IKUSGARRIA

Batzuentzat burges txikien beste luxuzko kapritxo horietako bat, beste hainbatentzat arrain gaixoez pairatzen duten gizakien injustizia... baina badira pertsona batzuk, gero eta gehiago, 'akuarioria' ren zale amorratuak direnak, arrainak zaintzeaz gain erlajazioa lortzen dela ziurtatzen dutenak.

Nik ezin dut batzuen ala besteen alde agertu, izan ere, etxean akuaria badudanez, nire objektibitatea zalantzan jarriko lukete askok, baita nuek ere. Baina zertxo bait komentatu dezaket bai, Kordoi Etxean antolatu duten arrain tropikalen inguruko erakus-



ketari buruz. Gauza ez da arrainak politak diren ala ez esatea, giza-kiok bezala, denetarik baitago. Horixe da, hain zuzen, mostraren gauzarik aipagarriena: denetarik dagoela.

Gaian aditu denak barietatea aipatuko luke, espezie ugari aurki baitaitezke. Hau dela eta, hogeia akuario baino gehiago prestatu behar izan dira, espezie talde bakoitzak bere beharrei dagoen ura izan dezan. Batzuetan oso zaila da ura presta-tzea, marrazoaren kasuan gertatu izan den bezala. Bai, marrazoa esan dut!

Azkenengo bisi-

taria metro erdiko marrazo txiki baina arriskutsu bat izan da, jada zauritu bat eragin duena, Kordoi Etxeke atea zeharkatzerakoan langile bati akuaria oinaren gainean erori zi-tzaionean.

Jakin izan dugunez, jende ugari zegoen marrazoa noiz etorri zai, Kordoi Etxea bisitatzeke. Ezin daiteke esan, ordea, bisitari gutxi egon dela, antolatzaileen arabera, 2.000tik gora pasatzen baitira egunero. Datu hauek, erakusketa arratsaldeko zazpietatik bederatzietara bakarrik zabaltzen dela kontuan izanik, arrain tropikalek jendea liluratzan dutela ziurtatzeko nahiko baliagarriak dira.

Goizetan, berriz, aurretik adostutako bisitak egiten dira, batez ere, ikastoletako eta beste eskoletako haurrentzat prestaturikoak. Kolorea dute haurrek gustokoien. Benetan txundituta geratzen dira akuarioren kristalen parean, tropi-



ASIER PZ. DE KARKAMO

koetatik ekarritako arrain eder hauen bizitasuna ikustean. "Begira ahoa zelan zabaltzen duen!" esaten dute haur askok. Ziur gaude arrainek hitzegingo balute, antzeko zerbait esango lioketela elkarri, zaila baita erakusketa ikusi eta ahozabali ez geratzela. Eta zuk, frogarik egingo al duzu? Maiatzaren 19 arte duzu parada.

ASIER PZ. DE KARKAMO

Floridako altxorra !

35

adaka M
madinabeitia

altzariak • apaingurak
Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

MUSIKAN ZER?

ERIC CLAPTON hurbilduko zaigu uztailaren 17an, Gasteizko Jazz Jaialdian, Legends izeneko taldearen eskutik. Baina, adi egon! Claptonen abesti mitikoak entzungo dituzula uste baduzu, ezustekoren bat har dezakezu. Kitarrajoleak berak argi eta garbi azaldu du: "Ni ez naiz taldeko izarra. Jazz abestiak joko ditugu. Legends taldean kitarrajolea baino ez nauzue".

LA POLLAK, Komak eta Su Ta Gar-ek parte hartu dute hizkuntza asturiarraren aldeko disko batean. Nola? Euren kanta baten bertsioa eginez, asturiarrez.

ZINE KARTELERA

MAIATZEAN nobedade nagusia Juanma Bajo Ulloa gasteiztarra-
ren *Airbag* pelikula izango du. *Airbag* bere hirugarren filmea da, "Alas de Mariposa" eta "La Madre Muerta" arrakastatsuen ondorengoa, eta erabat ezberdina. Hiru "pijo"ren istorioa kontatzen digu. Hiru lagun-
ek ezkon aurreko afarian galdutako konpromezu eratzuna bilatu behar dute. Datu interesgarri bat: berrogei aktore inguruk parte hartu du filmean.

BELDURRA gustokoa baduzu, ez galdu *Scream* -vigila quien llama, Wes Cravenen pelikula berria eta ezta *The Relic* ere. Bertan, Chicagoko Historia Museoan gertatzen diren fenomeno arraroen istorioak kontatzen dizkigute.

MUNDUKO I. Gerlan Ernest Hemingway-ri gertatutakoa ikusgai izango duzu *En el Amor y la Guerra* pelikulan, Sandra Bullock eta Chris O'Donelleekin. **ETA** bukatzeko Van Kilmer-
ren azken lana: *El Santo*, Leslie Charterisek sortu zuen personaiaren abentura berriak.

'Kilo' erdiko harria

HARRI BITXI ERAKUSTAZOKA IZAN DA GASTEIZEN EUSKAL GEMOLOGI ETA MINEROLOGI ELKARTEAK ANTOLATUTA

Kilo erdi, baina dirutan, hau da 500.000 pezeta, izan zen argazkian agertzen den harri puska horren truke eskatutako diru kopurua. Arte eta Ofiziotako Eskolan gertatu zen hori, apirilaren 19an eta 20an, Euskal Gemologi eta Mineralogi Elkarteak antolaturiko erakustazokan. Aurretik esan zigutenez, Estatu-
ko gemologorik hoberenak etortzekoak ziren eta, badaezpada, bertara joan ginen esandakoa egia ote zen ziurtatzeko.

Eta bai horixe! Hogei duroko harri bitxietatik hasi eta ehundaka mila pezetako balioa zuten topazio, esmeralda edota urre pepitak aurki ahal izan zituzten bertara hurbildu zirenek. Baina, erakusleen partetik kalitatea izan bazen nagusi, ikusleei dagokienez kanitateak aipatu behar du. Larunbat arrats partean eta igande osoan zehar, esaterako, erakusketako pasabideak jendez gainezka egon ziren. Hau dela eta, Euskal



ASIER PZ. DE KARKAMO

Gemologia Elkarteak kide eta Bartzelonako Unibertsitateko irakasle den Jesus Mari Jarillok esan digunez, hurrengo urtera begira "beste erakustoki baten bila gaude. Erakusketan parte hartzen duten gemologoe-
k, noski, ez daude leku aldaketa honekin ados, ez baitute nahi espositore gehiagoren partehartzea. Baina argi ikusten denez, lekua txiki-
egia da hain jendetza handiarentzat".

Notaritzak, erregistroak eta artekariak...

Euskararen Erabilpena Arautzeko Legeak, dagoeneko 14 urte beteak ditu indarrean, baina Notaritzak, Erregistro eta Artekari arloetan

oraindik berau sortu ez balitz bezala jokatzeko da. Bada garaia euskaldunak arlo hauetan ere gure eskubideak eskatzen eta betearazten hasteko.

Indarrean egon arren, arestian aipatutako legeak ez du zenbait arlotan eraginik, batez ere, Notaritzak, Erregistro eta Artekari arloetan. Normalean horrelakoetan paperik xumeena euskaraz betetzeko ere gauza ez dira. Euskaldunok, ordea, eskubide osoa dugu gure

Mendebaldeko euskal kantuak

Orain dela bi urte Hiru Truku taldeak harritu egin gintuen bere lehen lanarekin. Joseba Tápia, Bixente Martínez eta Ruper Odrorika hirukoteak euskal balada zaharrak bildu eta kantatu zituzten. Orain, haren jarraipena aurkeztu berri dute. Izan ere, "Mendebaldeko euskal kantak" lehenengoak bezala, euskal kantu zaharrak ekarri baitizkigu. Disko honetan 16 kanta aurkituko dituzue, guztiak zaharrak, "base-
rri giroan gorde diren eta egundaino heldu zaizkigun kantuak: Lo kantuak, umorezkoak, koplak.. tradizio lirikotik batutako kantu bilduma" daukagu hau.

Madrilgo Nuevos Medios-ekin grabatu dute berriro eta lan honetan ere kolaborazio apaigarriak aurkituko dituzu: Martin Carthy eta Nancy Kerr eta Imogen Gunner biolin jolearenak hain zuzen.

DAVID ALVEZ

dokumentu eta txostenak euskaraz eginarazteko. Hala ere, notario gehienak horretarako gai ez diren bitartean, euskaraz egiten dituzten lekuetara jotzea da gure aukera bakarra.

Argi eta garbi ikusten da berriro ere, euskaldunon eskubideak lortzeko zenbateraino ahalegindu behar dugun. Noizbait egingo al gara gure eskubideen jabe!

LEIRE LPZ. DE ABERASTURI

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

IPARRA

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

KLASEAK

matematika
fisika
kimika
biologia
geologia
euskara
irakaskuntza ertaina eta unibertsitatea
26 03 54

7 urte lanean, euskaraz, osasun arloan

OSASUNGOA EUSKALDUN-
TZEKO ERAKUNDEAK 429
KIDE DITU BERE BAITAN

Piskanaka-piskanaka bada ere, gizarteko eremu guztietan zabaltzen ari da euskara. Hala ere, behin baino gehiagotan, instituzioek egiten ez duten lanari elkarre pribatuek egin behar diote aurre. Horren adibide gisa, osasun arloa eta Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea aipa daitezke. Erakunde horretako gizon-emakumeak orain zazpi urte hasi ziren lanean. Orditik, euskara ardatza izanik, hamaika lan eta ahalegin egin dituzte osasun arloan. Elkarteko kidea den Fernando Gomez Bustok beren kezka eta asmoak azaldu dizkigu: "Gure lanean euskara bultzatu beharra zegoela ikusi genuen. Osasun arloko beharrak bereziak zirenez, erakunde hau sortu genuen eta egun 429 kide gaude bertan".

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak antolatuta, bi egunez, osasun arloko langileak eta arduradunak larrialdiez mintzatu ziren Europa Gizarte-etxean. Bertan, iritziak elkartrukatu zituzten, baita osasun arloko hiztegi berezia ere. "Osasun arloak hiztegi berezia du eta horregatik beharrezkoa da argitaratu nahi dugun euskal hiztegia". Hori bezalako ekimenei esker, euskarak aurrera egiten du eta, hain zuzen ere, horixe dute helburu Osasungoa Euskalduntzeko Erakundean dauden 429 lagunek.

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL



Mitorik gabeko sexualitatea

LANEAN HASI BERRI DA UDALAREN GAZTEEN ZERBITZUAK SORTUTAKO
GAZTEENTZAKO SEXUALITATE AHOLOKULARITZA

Oraindik hasi berriak direlako, Inma Ruiz de Lezana eta Alberto Martinez Santos sexualitate aholkularitzako arduradunak ez dira datu zehatzak ematera ausartzen, baina bere lana nondik nora joango den igartzen hasiak dira. Inma eta Alberto EMAIZE taldeko kideak dira. EMAIZE bera izan zen Udalak Ase-xoria abian jartzeko antolatutako ideia lehiaketa irabazi zuen taldea.

**Gazteek gero eta informazio
gehiago jasotzen dute eskolan.
Zerbitzu honek beste inon lor-
tzen ez dutenik ematen al die?**

Guk gazteei erantzunak eman nahi dizkiegu. Egia da gero eta informazio gehiago jasotzen dutela eskolan eta familian, baina, hala ere, zalantzak egon badaude. Eskolan jasotzen duten edo jaso beharko luketen informazioarena arazo konplexua da, epe luzera begiratzen duen plangintza baita: hezkuntza ona emateko irakasleak hezi behar dira aurrenik.

Nerabatasunean sexu eta maitasun harremanak hasten dira, eta neska-mutilak heziz doazen neurrian gauza berriak somatzen dituzte etengabe. Galdetu nahi dute, gehiago jakin, baina oso identifikatuta dauden tokietan -eskolan- ez dira ausartzen.

Gazteek nahi dutena jakiteko, guk hiru zerbitzu eskaintzen ditugu. Alde batetik, telefono bidezko informazioa dago: hor ez dago lotsa edo beldur arazorik, zerbitzua erabat anonimoa baita. Bestetik, aholkularitza pertsonalizatua dago: Santiago Osasun Zentruarekin akordio bat lortu dugu eta gazteak hartzeko egun bat jarri dute. Bertan kontrakontzeptzioari buruzko zalantzak argitu eta tratamenduen berri eman-go zaie gazteei.

Hirugarrenez, sexu heziketari buruzko hainbat ziklo egiten ditugu Bigarren Hezkuntzako eskoletan. Gure ustez, urtean zehar ziklo bat egitea ez da nahikoa, baina etorkizunerako oinarri bat jartzea garrantzitsua da.

**Gazteek zer bilatzen dute,
informazioa besterik gabe edo
arazo baten aurrean irtenbide-
ren bat?**

Denetik dago. Egia esan sexualitateari buruz horrenbeste mito eta gezur entzuten direnez, neska-mutil askok harreman bat hasten dutenean zalantzak dituzte eta erantzunak eskatzen dituzte. Hala ere, guztiak ez dira harremana hasi aurretik etortzen. Badaude esperientziaren bat izan eta gero datozenak, haurdunaldiak ekiditeko moduez galdetzen

dutenak... Sexualitateari buruz hitz egitean kontrakontzeptzioari buruz ari garela ematen du, baina ez da hori bakarrik, homosexualitateari buruz galdetzen ere etorri dira... Oraindik denbora gutxi daramagu, baina zera azpimarratu nahi genuke: guztien eskaerei erantzuteko prest gaudela. Gazteak, seme-alaben nortasun sexualari buruz zalantzak dituzten gurasoak, lanen bat egiteko bibliografia behar dutenak...

**Gazteen sexualitateari buruz
hainbat mito entzuten da: asko
dakitela, ez dakitela ezer...**

Arlo horretan lanean daramatzadan urteetan gauza bat ikasi dut: gazteen arazoa ez da informazio gutxi izatea, baizik eta heziketa kaxkarra izatea. Informazioa badute, asko gainera, baina ematen zaien informazioaren barruan mito ugari eta ideia estereotipatu eta karikatuzatu asko daude. Komunikabideek kontsumo gaia bihurtu dute sexua, audientziak igotzeko gaia. Guk informazio erreala eman nahi diegu, adin ezberdinei egokitutakoa gainera.

**Denbora gutxi daramazue
lanean. Ondoriorik atera
duzue?**

Etortzen diren gehienak 18 eta 22 urte bitarteko neska-mutilak dira. Informazio sexuala ez da nesken arazoa bakarrik, baina mutil baino neska gehiago etortzen direla esan daiteke, nahiz eta alde nabarmen-egia ez egon. Alde handiagoko dago telefonoaren erabilerrari dagokionean: mutilek telefonoa gehiago erabiltzen dute eta neskek aholkularitza pertsonala nahiago dute.

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK
berreskuraturiko egurrez eginak
eta **OSAGARRIAK**

*artisaan lanak
lorategi eta barrualdeko-proiektuak
egiten ditugu*

Trav. Norte, 16 7. pabilioia
Tfno-faxa 12 05 84
01013 Gasteiz

Herreria 38, behea
25 25 03



San
Antonio, 39

Judimendi parkearen aldeko batzordea sortu dute auzokideek

UDALAK PARKEAN BERRIKUNTZAK EGIN DITZALA ESKATU DUTE

Judimendi parkearen (Sutaustegi Zaharra) hobekuntzen alde lan egingo duen Batzordea aukeratu berri du Auzo Elkartek. Batzordea lanean joan den apirilean hasi bazen ere, aspaldikoak dira auzokideen aldarrikapenak. Izan ere, hamazapi urte dira dagoeneko auzotarrek hobekuntzak eskatu zituztela.

Martxoaren 10ean Udalak aurrekontuak onartu zituenean, Judimendiko Auzo Elkartek hamazapi puntutako eskakizun zehatza egin zuen, eta Cuerda alkateak beraiekin bilduko zela hitza eman zien. Hala ere, eta data zehatzik jarri ez zenez, Batzordea lanean hasi da, bileraren zain dauden bitartean. Lanean hasi berri den Batzordearen lehengo lanetarikoa bat sentsibili-

zazio kanpaina egitea izango dela adierazi du Auzo Elkartek.

Auzo Elkartearen aldarrikapen nagusiak bost dira: parkea zeharkatzen duen errepide-aparkalekua kentzea; auzokideentzako sarrera berriak sortzea; eskailerak berritu eta gutxitu fisikoentzako moldatzea; jolasgunea berritzea "zaharkitu eta arriskutsua delako"; eta Iturritxu kalera ematen duen horma botatzea.

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI



'Hara bada enuskaldunak gara'

GASTEIZKO IKASTOLA PUBLIKOEK HIRIAREN ERDIGUNEA OKUPATUKO DUTE MAIATZAREN 16AN

Gasteizko 12 Ikastola publikotako Guraso Elkartek sekulako Festa antolatu dute hile honen 16 rako. Hain zuzen, Abendaño, Abetxuko, Adurtza, Angel Ganivet, Aranzabela, Bambi, Barrutia, Ikas Bidea, Luis Elejalde, Odon de Apraiz, Toki Eder eta Umandi dira ekimen honetan parte hartuko dutenak, eta guztien artean, Gasteizko erdigunea jolastoki bihurtuko dute.

Bazkalostean hasiko da jaia, hirurak eta laurdenetan hain zuzen. Ikastetxeko guztietako haurrak Juan de Aiala eta Jesus Mari Leizaola plazetatik abiatuko

dira, kalejiran, Foru Enparantzaruntz. Han, ordu erdi beranduago, festaren abestia kanta eta maskota aurkeztuko dira, eta 4retan 'Tako-lo, Pirritx eta Porrotx' pailazoek 'Tantaka Yotanka' ikuskizuna burutuko dute. Pailazoan ikuskizuna amaituta, haurrek Alde Zaharra berea egingo dute. Festaren antolatzaileek buruhandiak, herensugea, tailerrak eta beste hainbat ekintza prestatuko dituzte arratsalde osorako. Hainbat gaztelu pusgarri izango dela ere jakin izan dugu. Amaitzeko, sei t'erdietan, Dantza egongo da, Plaza Berrian, Udal Folklore Akademiak eskeinirik.

Baina beste bi gauza dira ere aipagarri: batetik, Liburu-saltzaileen Elkartek hainbat 'stand' jarriko dituela, haurrei zuzenduriko liburuez beteta, eta bestetik, hurrengo goizean, hau da, maiatzaren 17an, Arantzabela Ikastolako XVII. Krosa burutuko dela. Zita goizeko 11etan izango da, Salburuan.

ASIER PZ. DE KARKAMO

"Euskaraz mintzatzen hasi den haurra, gai da euskaraz jolastu eta gozatzeko"

**haurrak
oporretan,
euskaraz
olgetan**

NORENTZAT?

Aurten, lau urte bete edo betetzear daudenengandik hasi eta zortziren inguruan dabilzanentzat.

KUOTA

10.000 pzta (Udalak lagunduta)
(Bazkideak, Elkartearen laguntzaz:
8.000 pzta)

BUS ZERBITZUA
(prezioaren barnean)

PLAZAK MUGATUAK

astelehenetik ostiralerarte, Ulztaileangoizero
EUSKARA MAITATZEN

UZTAILEKO EKINTZAK

**ZURE
HERRIA
BIZI**



EUSKARAZ



IZENEMATEA IREKITA



**Nieves (26 98 55)
Natxo (17 02 45)**

ZUEN SEME-
ALABEN
EUSKARAren
SENA
INDARTU
NAHI
BADUZU...
ZATOA
GUREKIN!

Gasteizko
EUSKARAZBIZI
Taldeak antolatuta



IRAHARDUERA LAGUNDUA

ACTIVIDAD SUBVENCIONADA

LEHIAKETAK

IPUIN EROTIKOEN II. LEHIAKETA

NOIZ:

Lanak bidaltzeko azken eguna, maiatzaren 14a izango da.

ANTOLATZAILEA:

EUSKARABILA, Basauriko Euskaldunon Elkartea

Aurkezturiko lanak argitaragabeak eta euskaraz idatziz izango dira. Makinaz idatzirik DIN A-4 neurritako bitik sei orri bitarterako luzerakoak izan behar dira.

Lanean ez da egilearen daturik jarriko, soilik lema bat. Egilearen datuak sobre itxi batean sartuko dira, azalean lanean jarriko lema bera azalduz. Lan originalak, hiru kopia, eta egilearen datuak dituen sobre batean beste handiago batean sartuta, honako helbide honetara bidali behar da:

EUSKARABILA Elkartea, 146 - P. k.

48970 BASAURI

1. saria: 50.000 pezeta 2. saria: 30.000 pezeta

ERAKUSKETAK

EXPOPEZ, ARRAUN TROPICALAK

NOIZ:

Maiatzaren 19a bitartean, arratsaldeko 7retatik 9etara

NON:

Kordoi Etxean

KOMIKIAK 100 URTE

NOIZ:

Maiatzaren 16a bitartean

NON:

Floridako Kultur Etxean

ANTOLATZAILEA:

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Saila

HITZALDIAK

KOLDO AMESTOY: "APANIZE"

NOIZ:

Maiatzaren 21ean, arratsaldeko 7retan

NON:

Landatxo Gizarte Etxean

ANTOLATZAILEA:

Gasteizko Udaleko Gizarte Etxeak

OHARRA: Gonbidapen txartelak hartu behar dira Gizarte Etxeko Informazio Zerbitzuan, maiatzaren 12tik 20ra, dohain.

GAUR... FERNANDO SAVATER,

ETIKA KATEDRADUNA ETA IDAZLEA

NOIZ:

Maiatzaren 22an, arratsaldeko 8retan

NON:

Villa Suso Jauregian

ANTOLATZAILEA:

Gasteizko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Saila

HERRI-KIROLAK

NOIZ:

Maiatzaren 24ean, goizeko 11etan

NON:

Arriaga Gizarte Etxean

ANTOLATZAILEA:

Gasteizko Udaleko Gizarte Etxeak

IKASTOLA PUBLIKOEN FESTA

NOIZ:

Maiatzaren 16an, arratsaldeko 3etatik 7etara

NON:

Foru Enparantzaren inguruneetan

ultur agenda

EZIN GALTZEKO

OLERKIGINTZA

KOLDO IZAGIRREREN "NON DAGO BASQUES HARBOUR" POESIA ERREZITALA

NOIZ:

Maiatzaren 8, osteguna, arratsaldeko 8retan.

NON:

Floridako Kultur Etxean

ANTOLATZAILEA:

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak, 'Hitza Kultur Etxean' programazioaren barnean.

1953. urtean jaioetako pasaitar honek, oraintxu SUSAK argitaraturiko "non dago basques harbour" olerki liburua aurkeztuko du ordubete inguruko errezitalean. Ekitaldi hau, autoreak bi hilabete luzez (apirilaren 15ean hasita eta ekainaren 15 bitartean), Euskal Herri osoa zeharkatuz egingo duen biraren barnean kokatu behar da. Martxoan argitaratua den liburua, itsasportuetako giroa helaraziko digu batez ere, hori baita "non dago basques harbour" lanaren ardatz nagusia.

Aukera paregabea beraz, Atxaga, Sarriñandia, Lertxundi edota Saizarbitoriarekin batera egungo euskarazko literaturgintzaren autorerik esanguratsuenetarikoa den Koldo Izagirreren azken lana bere ahotik bertatik ezagutzeko.

★
IZ
TABERNA
R
A
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



GYREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

geu gast 12

raba

MIKEL MINTEGI

ARABAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ETA EUSKARA SAILBURUA

*"Trebiñoren integrazioa lortu
dugula irakurri nahiko nuke
kargua utzi aurretik"*

anekan bai, Mikel
Mintegi ezagutzeko gogoia.
Euskararen inguruan mugitzen
garenok askotan entzuten dugun
izena da arabarron kultura eta
euskararen arduradun nagusia-
rena: "Mintegik hau esan
duela, Mintegik dirulaguntza
eman digula, Mintegi ez digu-
la dirulaguntzarik eman...
Azkenean hain pertsona 'fama-
tua' ezagutzeko aukera heldu
zitzaidan.



ASIER PZ. DE KARKAMO

Zer aldatu da Arabako kultur munduan
Mikel Mintegi diputatu denetik?

Nire ustez kulturaren egoera ez da alda-
tu behar politikoen aldatetekin, horrek
kulturaren estruktura ahulak direla esan
nahiko baituke. Tradizioa mantentzea da
helburu nagusienetako bat, eta ni horre-
tan saiatzen naiz.

0-tik 10-era zein da kulturaren egoera
Arabara?

Galdera zaila! Batetik Arabako herriak

beren tradizioak mantentzen oso lan
handia egiten ari direla esan daiteke.
Horretan maila kultural handia du Ara-
bak. Bestetik, kultur taldeek ere lan oso
aipagarria egiten ari dira. Ordea, zenbait
ekitaldi kultural berri antolatzen direne-
an, esaterako musika klasikoaren ingu-
rukoak edo, batez ere Gasteizen, jende
gutxi hartzen du parte. Agian, gauza
gehiegi antolatzen delako gertatzen da
eta ekitaldien antolatzaileen arteko koor-
dinazio falta bat soma daiteke... ez dakit.
0-tik 10-era... zaila da esatea. Maila ona
mantentzen dela esango nuke.

Gasteiztarrek ezagutzen al dute Araban
egiten duzun lana?

- Bernardo Atxagak idazleak 'La Alqui-
mia al revés' esaldiarekin azaltzen duen
fenomeno bat gogoratu didazu galdera
horrekin: guk, oso liburu polit bat idatzi
ezkero eta bertan Foru Aldundiaren
edota Diputatuaren izena agertu ezkero,
liburu horrek, azkenean, zakarrontzian
bukatzen du. Politikoei askotan gustat-
zen zaigu argazkian agertzea. Nik ez dut
hori oso gustoko. Kontuz ibili behar da
horrekin.

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK

zurbeltz

MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

TXVSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**

Mateo Moraza kalea
GASTEIZ

Ederki

argazki estudioa

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunikioak, bataioak

Estudioko argazkiak

Bideoa industrial

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

Kargua uzten duzun egunean zein titular irakurri nahiko zenuke egun hartako prentsan?

Trebiño Araban integratu dela, noski. Araba osoaren batasuna litzateke. Bestalde, Araba osoko biztanleek euskara ikasteko aukera izan dezaten lortu nahiko nuke. Gasteizen oso erraza da euskaltegi batera joan, asko baitaude eta edozein ordutegirekin. Hau, herri askotan ez da posible. Hori gustatuko litzaidake, helduen euskalduntzerako azpiegitura indartsu bat ezartzea Araba osoan.

geu gasteiz

"Euskara Arabako hizkuntza da; gaztelera 900 urtez mintzatu da bakarrik. Euskara, beti"

geu gasteiz

Duela gutxi hurrengo urterako Arabako haurren aurrematrikulazioaren datuak argitaratu dira. Zer esan nahi dute datu hoiek?

Indikadore bat da. Gasteizen denek onartzen dute euskararen erabilera. Beste gauza bat da euskararen ikaskuntza. Begira, euskara beti izan da Arabako hizkuntza, betidanik. Askoz ere urte gehiagoz hitzegin da euskaraz gaztelera baino. Gaztelarak bakarrik 900 urte ditu.

Horren aurretik, eta bitartean, euskaraz hitzegin da. Gaur egun gauden egoeran gizarte osoak euskara nahi du. Beste gauza bat da ikaslea. Hemen bi indikadore daude: haurren hezkuntza eta helduen irakaskuntza. Lehen indikadoreak esaten digu haurren gehiengoak ikasten

duela, ez euskara, baizik eta euskaraz. Beste indikadorea euskaltegiarena da, eta hor ere jende pilo bat dago. Datuok euskara Arabako hizkuntza dela esaten dute, aurrera joko duela. Epeak ezin dira zehaztu, baina prozesu naturalak euskaraz hitzegitera eramango gaitu.

Hizkuntz Normalizaziorako

Arautegia prestatzen

Mintegik ez du euskara arazo politiko bezala erabili nahi. Foru Aldundiak, baina, arazo politiko bat badu euskararekin, oraindik ez baitago euskararen normalizaziorako arautegirik. Arautegi honek, Foru Aldundian euskarak eraman beharreko bilakaera zehaztu beharko luke: aplikazio esparrua, herritarren hizkuntz-eskubideak, Diputazio-ko langileen euskalduntze plangintza...

Une honetan -esaten digu Mintegik- Hizkuntz Normalizaziorako Arautegia prestatzen ari gara, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi onartu baitu oinarritzko testua, Diputazioek eta Udalek arautegiak prestatzeko. Guk (EA, EAJ eta PSE-k osatzen duten tripartitoak) arautegia prestatuko dugu eta gero beste alderdiei zabalduko diegu.

Baina, Biltzar Nagusietan euskararen aldeko taldeak nagusi izanik (EA, EAJ, HB eta IU-EB alderdiek gehiengoa dute), ez litzateke hobeto talde hauen artean arautegia prestatzea eta gero beste alderdiei zabaltzea. Izan ere, gizartea euskararen alde egonik...

- Niretzako askoz inportanteagoa litzateke Arautegia ahobatez onartua izatea.

Hori ezinezkoa...

- Ez pentsa. Langileen euskalduntze prozesua burutzeko plangintza, esaterako, sindikatu denek onartu zuten.

Bai, baina alderdi politikoein ezberdina litzateke, ez?

- Ez dut uste... Beno, zaila izango da. Baina oso inportantea litzateke niretzat. Gauzarik errezena da gehiengoa duten talde batzuen artean onartzea eta besteak baztertzea, baina gero bazterturik geratu direnek prozesua oztopoz bete dezakete. Horrexegatik uste dut nik kontsentsua hain inportantea dela.

Ez dakigu ba! Egokia al da euskararen arautze plangintza baten prestakuntzan euskaltzaleak ez diren taldeak aritzea? Nork daki?

Gasteizko ordenantzak euskaltzaleak ez diren alderdiak onartzea lortu zuen Cuerdoak eta, euskaltzaleok behintzat, ezin dugu esan esperientzia ederra izan zenik. Bere lana egiten utziko diogu Mikel Mintegiri, baina Gasteizko esperientzia Biltzar Nagusietan errepikatu ezker, ez gara ez, kontent gertatuko. Arabar gizarteak euskararen alde egin du. Biltzar Nagusiek gauza bera egitea espero dezagun!

Asier Perez de Karkamo



Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

PLaTó
TABERNA
Zaldiaran Plaza, 10
22 65 64
GASTEIZ

7. alaba Kanpezun kultura gatazkagai

UDALAK BETAGARRI KULTUR ELKARTEAK URTEAN EGINIKO EKITALDIEN JABETZA HARTU NAHI DU

Arabako beste hainbat ingurune bezala, Kanpezu ere, duela hamar bat urte basamortu kulturala zen. Hango mila eta piku biztanleentzat herrietako berbenak ziren kultura ekitaldi bakarra. Orduntze kokatu behar da Betagarri Kultur Elkartearen sorrera, eta aldi berean, Kanpezuko Kultur berpizkundearen hastapenak. Orain, zazpi bat urte geroxeago, Betagarri eginiko lan guztia arriskuan dago, Udalean gehiengoa duen taldeak Kultur Elkartearen lana beretzat hartzea erabaki baitu.

UDALA ETA BETAGARRIren artean eraikiriko harre-siaren lehen harria iaz kokatu behar da, IKAK duen euskaltegia ixten saiatu zenean Alkatea. Orduan, Betagarri, euskaltegiaren alde altxatu zen. Izan ere, Betagarri eta Kanpezuko euskaltegia beti ibili dira eskutik helduta, euskararen alde egiteko sortu bai-tzen duela sei urte Kultur Elkartea, AEKren esku zegoenean helduen euskalduntze lana.

Baina aurtengoa askoz ere larriagoa izan da. Alkatetza duen EAJren udal taldeak iaz Betagarri eginiko kritiken ondoren, aurtun Elkarteari "0 pezetako diru laguntza ematea" erabaki zuen. Hala azaldu digute Gurutzek eta Susanak, Betagarriko kide direnak. "Sekula ez dugu arazorik izan Udala-rekin. Urtero gure aurrekontua aurkezten genuen eta diru laguntza bat eskeintzen ziguten gure eki-taldiak burutzeko. Esaterako, iaz, 650.000 pezeta eman ziguten".

Anitzak dira Betagarri antolatu izan dituen kultur ekintzak: Olentzeroak, San Juanetako suak, Ihauterietako 'Toribio'ren berreskuratzea, eta abar. Baina guztietan arrakastatsuenak, dudarik gabe, Kultur Astea eta Antzerki Hilabetea izan dira. Hain zuzen ere, bi hauek bereganatu nahi izan ditu Uda-lak, Udalbatzan harturiko erabaki esperpentiko samar bat dela medio. "Udalak Kultur Astea eta

Antzerki hilabetea antolatzea erabaki zuen, hau da, gure bi ekitaldi arrakastatsuenak beraiek antola-tzea.". Erabaki horrekin batera, Betagarriren beste ekitaldiak burutzeko 100.000 pezetako laguntza ematea ere erabaki zuten.

IRTENBIDEAREN BILA

Susana eta Gurutzek arazoa kopondu egin nahi dute. "Gauza bat argi daukagu: Alkateak gurekin duena arazo pertsonala da eta edozer gauza egin-go dugu hori konpontzeko. Hainbat eskutitz bidali ditugu Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzara, Arar-tekotzara, EAJren Araba Buru Batzarrerara eta beste hainbat lekutara. Orain arte erantzun bakarra jaso dugu 'Joxemi Zumalabe Fundazioa'rena eta laguntzeko prest daudela esan digute". Beste eran-tzunen zain daude, beraz, Betagarrikoak, Kanpezu-ko Udalarekin duten tira-bira hau konpontzeko.

Une honetan auzia honela dago: Betagarrikoek bai Kultur Astea (maiatzaren erdialdean), bai Ant-zerki Hilabetea (uztaildean) burutzeko erabakia hartu dute, horretarako dirulaguntzarik lortzen ez badute ere. Bestalde, Alkateak bere horretan segi-tzen du. Dirudienez, Antzerki Jaialdia uztailean egin beharrean iraila edo urria arte atzeratzea onar-tu du, hau da, Betagarri ordurako berea burutua

izango duenerako. Hau begi onez ikusi dute Beta-garrikoek, baina inola ere, ez da hori kon-pon bidea diru lagun-tzaren auzia oraindik era-bakitzeko baitago.

Gauzak lehenbailehen konpon daitezela desio dugu guk ere eta lerro hauen bidez hori eskatzea baino ezin dugu egin. Ez da bidezkoa hainbat urte-tan euskararen alde dohainik, sendo eta etenik gabe hainbeste lan egindako Betagarri bezalako Elkarte batek, arazo pertsonal batzuenatik, jasotzen ari den tratua jasotzea. Gure aldetik, gauzak zuzen dai-tezen zerbait egin badezakegu hementxe gaude behar duzuenarako. Halere, bihotzez espero dugu horretarako beharrik ez izatea.

 Asier Perez de Karkamo



Euskararen aurkako erasoak ikustera Gasteizaino etorri beharrik ez dagoela erakutsi digute Gurutzek eta Susanak



IKATZ
ARGAZKI-ETXEA

• Cruz Blanca, 11 •

• Dendaraba •

• ECOCENTRO •
(Portal de Villarreal)

• Plaza San Martín, 1 •

• VITORIA • BILBAO • EIBAR • MIRANDA • MONDRAGON •

ika Ekitaldiz beteriko kultur astea maiatzean



GASTEIZKO giroa zuzpertz nahian, IKAk hainbat kultur ekintza burutzen du ikastaldi bakoitzean. Berreuskalduntze prozesua ez da gertatzen euskararen ikasi eta menperatze soilarekin. Ez. Ikasleek Euskal kultura ezagutu behar dute, eta ezagutu ezezik, haren baitan murgildu ere egin behar dute.

Gasteizen ikasleek ez dute euskara erabiltzeko ahalbide handirik, instituzioek ikasleei euskaraz egiteko ahalbide eskasa eskaintzen diete; hauetaz guztiez gain, euskara ikasteko bideak aski urriak eta hertsia dira instituzioek plazaratu

beharko lituzketen baliabideak ez baitituzte plazaratzen. Honako testuinguru hau kontuan izanik, IKAk hainbat kultur ekitaldi antolatzen du, hala nola: Gaztain jana eta Txorizo jana (abendua baino lehen) eta Inauteriak. Ektaldiok harrera eta arrakasta ona ekarri ohi dute.

Maiatzean, IX. Kanpoko kultur astea antolatu dugu. Kanpoko kultur asteko ekintzak maiatzaren 12tik 17ra bitartean izanen dira gozagai. Euskaldunak oro dira gonbidatuak, gazte zein zahar, hortaz, gasteiztar guztiok dituzue ateak zabalik.

uskal
Kulturako izen ezagun
eta ospetsuak hartuko
dute parte IKAK
antolatutako egitarau
oparoan
Bernardo
Atxaga, Asisko
Urmeneta, Pello
Zabala, Koldo
Izagirre, Joxe Maria
Karrere, Furunda,
Morav, Hika antzerki
taldea, Harkaitz Cano,
Garikoitz Berazaluze,
FAS tadea eta beste
hainbat lagun izango
dira Gasteizen
maiatzaren 12tik 18ra
bitartean

**TXAPELARRI
TABERNA**
KUTXI
kalean

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA
Tfno: 12 08 88
01001 - GASTEIZ

**JANTZI ETA
OPARIAK**

Kutxilleria, 27
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbear Merkaturia - Zaldian •



**MAIATZAREN 17AN,
ASTELEHENA**

zer

**Ipuin kontaketa:
Mingain haragia**
(emakume ipuinak)

zein

Joxe Mari Karrere

noiz

Arratsaldeko 16:30etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

200 pta

...

**MAIATZAREN 18AN,
ASTEARTEA**

zer

**Ipuin kontaketa:
Mingain haragia**
(emakume ipuinak)

zein

Joxe Mari Karrere

noiz

Goizeko 11:30etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

200 pta

...

zer

**Eguraldiari buruzko
hitzaldia**

zein

Pello Zabala eta Jon

Albizu

noiz

Arratsaldeko 20:00etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte
etxea)

sarrera

Dohainik

...

**MAIATZAREN 19AN,
ASTENEGUNA**

zer

Kafe tertulia

zein

Asisko Urmeneta,
Napartheid euskal
komikiaren partaidea

noiz

Arratsaldeko 17:30etan

non

Parral taberna

sarrera

Dohainik

...

zer

**Antzerkia: Henry
Bengoa inventarium
obra**

zein

"Hika" antzerki taldea

noiz

Arratsaldeko 20:00etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

300 pta

...

**MAIATZAREN 19SEAN,
OSTEGUNA**

zer

**Euskal zinemaren
historia petrala
liburuaren**

aurkezpena eta 2

pelikula: Pernando

Amezketarra eta

Ekialdeko Izarra

zein

Koldo Izagirre

noiz

Goizeko 11:30etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

Dohainik

...

zer

**Poesia-bideo
emanaldia. Bi itzal**

zein

Harkaitz Cano eta
Garikoitz Berazaluze

noiz

Arratsaldeko 16:30etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

Dohainik

zer

STRONG ikuskizuna

zein

FAS taldea

noiz

Arratsaldeko 20:00etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)



sarrera

400 pta

...

**MAIATZAREN 19A,
OSTIKALA**

zer

**Hitzaldia:
Groelandiako lekzioa**

zein

Bernardo Atxaga

noiz

Goizeko 11:00etan

non

Beñat Etxepare
(Iparralde gizarte etxea)

sarrera

Dohainik

...

zer

Kontzertua

zein

Furunda eta Morau
taldea

noiz

Gaueko 21:00etan

non

Gaztetxea

sarrera

350 pta

...

**MAIATZAREN 19TAR
19A**

zer

**Napartheid
komikiaren azken
alearen irudiak**

non

Parral taberna

Ikaperia 97

Maiatzaren 17an Ikaperia jaia ospatuko dute IKAKO ikasle eta irakasleek. Ikaperiaren helburu nagusienetako bat euskara Gasteizko plazara ateratzea denez, egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: kalejira-poteoa eguerdian, herri bazkaria ordu bietan eta bazkariko betekadaren ondoren urdaila arintzeko, arratsaldeko bostetatik aurrera, jokuak, txapelketak, artisauak, antzerkia eta beste zenbait ekitaldi izango dira.



ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**

EUSKAL OKELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24

Tfnoa: 25 56 90

GASTEIZ

*Tu Invernadero
zure lore sortak*

ALDABE 6, BEHEA

tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Atzerapen handiz irekiko ditu ateak

Lanen ardura
izan duen
enpresak 20

milioiko isuna
ordainduko du



KULTURA arlo ezberdinak bilduko dituen gunea izateko asmoarekin irekiko ditu ateak irailean Montehermoso jauregiak, baldin eta atzerapen gehiago gertatzen ez bada, behintzat. Historian zehar gatzak izan duen garrantziari buruz Caixa Fundazioak antolatutako erakusketa didaktiko batekin inauguratuko da Alde Zaharreko kultur zentru hau. Azken hilabeteetan lanak amaitzeko epea behin eta berriz luzatu egin da eta arrazoi horregatik udalak 20 milioiko isuna jarri dio lanen ardura izan duen enpresari.

Orain, eraikinaren konponketa lanak bukatu ondoren, irailera-ko guztia prest egon daitekeela adierazi dute udalekoek.

Kultur gune berri honen erabilpena ez da ohiko museoena bezalakoa izango. Udalaren asmoen arabera, kultur arlo ezberdinak bilduko dira bertan eta garrantzi berezia izango du hurbiltzen direnen parte hartzeak. Museo interaktibo baten antza izango du, erakusketa ugari lekua izango dutelarik.

Arte garaikideko erakusketez gain, beste zenbait erabilera ere izango du zentru berri

honek. Besteak beste, musika kontzertuak egiteko aukera eta hiritar guztientzat antolatutako ekintzak. Udaleko kultura arduradunek azaldu dutenez, bertan egingo diren ekintzak hiritar guztiei begira antolatuko dituzte. Horretarako hiru ordutegi aurreikusi dituzte eskola ordutegian ikasleei zuzenduta; arratsalde, hiritar guztientzat eta, hirugarrenez, asteburuetan taldeei begira antolatutako ordutegia.

Montehermoso jauregiaren eraberritze lanak 1994ko abenduan hasi ziren eta 443 milioiko dirutza gastatzea aurreikusi zen. Ordea, espero ez ziren zailtasunak aurkitu zituzten eta azkenean 523 milioitik gora xahutu dira konponketa lanean. Dirutza horri beste 322 milioi gehitu behar zaizkio, Udalak gotzaitegiari eraikina erosteko erabili zituenak, hain zuzen ere.

Erabilera ugari izan duen jauregia

• **1510 ETA 1514** bitartean eraiki zuten Montehermoso jauregia, Ortuño Ibañez de Agirrek hala aginduta. Moja domingotarrentzat komentu gisa eraiki zedila agindu zuen baina ez zen inoiz lekaiamerik sartu bertan. Bere emazteak eskatuta, jabeen jauregi-egoitza izateko erabili zuten. Komentua, Pintoreria kalean eraikitzea agindu zuen. Jauregia Agirretarren izenaz ere ezaguna da, denbora batez bere jabe izan zirenen deituraren omenez.

• **1701ean**, Felipe V.ak bertan hartu zuen ostatu. Madrilén errege kargua hartzera zihoiatza. Doña Maria Luisa Saboyakoa haren emazteak ere bertan eman zituen hilabete batzuk 1710ean. Jose Bonaparte ospetsuak ere, Montehermosoko markesarekin ezkutuko harremanak izan omen zituenak, hartu zuen ostatu zenbait alditan etxe horretan.

• **1862an**, Gasteizko elizbarrutita sortu zenean, Gotzainaren egoitza bihurtu zen, eta horregatik, eraikin hau Gotzainaren Jauregia izenaz ere ezagutzen da. 1992an Udalak udal erabileretarako eskuratu zuen, gotzaitegiari 322 milioi ordaindu ondoren.

• **XIX. mendearen bukaera aldera**, Iniguez de Betolaza arkitektoak eraldakuntza garrantzitsuak burutu zituen eraikin honetan. Berari zor zaio estilo neolitikoz egindako fatxada berria.

• **1997an**, eraldaketa berriak egin ondoren eta hainbat hileko atzerapenarekin, Gasteizko Kultura zentru berria bihurtuko da. Museo arrunt bat baino zerbait gehiago izan nahi du.

LA RIOJANA
jatetxea
on egin! EGUNEKO MENUA
ETA KARTA

Kutxilleria, 33 tfnoa. 25 02 39

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA
HOBEBE ALTZARIAK ETA ATSEDENA

• koltxoak • somierrak •
kanapeak • ohe artikulatuak •
latex • futton • ipar edredoiak •
neurritara egindako armairuak •

01004 VITORIA-GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
01002

28 28 39
Gasteiz

Zuhaitzti
den-dena
bizirikilatua

Kutxilleria, 6 behe • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

OKO!
arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

Ultur



**Maiatzaren 18an
IGANDEA**

**GEUrekin
Mendira**

**URKIOLA SANTUTEGIARI
ARAMAIOra**

irteera:

• goizeko bederatzi
Ferdietan, Prado kalean,
Txapela tabernaren aurrean

itzulera:

• Sak aldera

**AUTOBUSEZ JOANGO GARA
(PREZIOA: 300 PEZETA)**



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA
Manuel Iradier kalea, 9-A Tñoa. 14 88 95

El Regreso de los Narcisos Locos

JOSE LUIS PASARIN ARISTI



Jose Luis Pasarin olerkari arabarrak prosara egin du salto aurrenekoz, 'Nartziso eroen itzulera' lanarekin. Baina, olerkia eginez egin du salto. Izan ere, liburuxka osatzen duten 15 istorio laburretan Pasarinen ohiko sinbolismoak eta, batez ere, ironia garratzak presentzia nabarmena dute. Bitxikeria baten ondorio da, gainera, 'Nartziso eroen itzulera'. Jose Luisek berak osaturiko editorialak kaleraturiko liburu hau ez zen argitaratzeko idatzia izan, Pasarinentzako berarentzako baizik. Lagunek behartu dute Jose Luis bere idazki hauei liburu itxura ematera.

'Nartziso eroen itzulera' independentzia lortu berri duen herri batean girotzen da, Narvoren alegia. Herri alaia da, beraz, Narvoren, baina nazio guztietan bezala, era eta moeta guztietako pertsonaia eta gertakariak aurki daitezke bertan. Eta horixe egin du Pasarinnek liburu honetan, hots, pertsonaiarik eta gertakaririk bitxienak, harrigarrienak eta sinistezinenak gureganatu. Narrazioa bizkorra da erabat, ironiaz, umorez eta esperpentoz betea. Zientzia-gizon eroak, exekutibo asegaizak,

GEU GASTEIZ
aldizkariaren eskutik

Nartziso eroen itzulera

Jose Luis Pasarin Aristi

Larrun argitaletxea

Gasteiz, 1997

puzkerrak bota besterik egiten ez duten umeak, erosi eta saltzen diren itzalak... denak dira Jose Luis Pasarin amets eta amesgaiztoetatik jaioak. Gasteiztar olerkilaria zertxobait ezagutzen dutenek, badute bigarren arrazoi bat 'Nartziso eroen itzulera'ra hurbiltzeko: liburuan agertzen denaren eta Jose Luisen bizitzaren arteko antzekotasunak aurkitzea. Liburu denak autorearen autobiografia direla zioenak ba ote zuen arrazoirik?

Pasarin lehenengo prosazko lan hau ez da elaberria, ezta liburu bat ere, eta seguruenik, kontakizuna ere ez da. 'Nartziso eroen itzulera' une dibertigarria bat da soilik, eta hori, mundu ero honetan, aski da liburua erosteko.

ASIER PZ. DE KARKAMO

Argazki - Estudio

Eramun

Heraclio Fournier, 23
Tñoa: 13 71 02
01006

Libertad, 5
Tñoa: 26 19 91
01004

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

Xabier

musika ona
eta giro
ezinhobeat **taberna**
Kutxileria 23

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



kide



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Langile mugimenduaren egungo aldarrikapen nagusiak

aiatzaren lehena sindikatuentzat egun esanguratsua izaten da. Guztiak ateratzen dira kalera egun horretan euren aldarrikapenak egitera. Beste arto gehienetan gertatzen den bezala, sindikatuek ere ikuspegi ezberdinak dituzte lan munduaren inguruan eta diferentzia horiek beren aldarrikapenetan ikus daitezke. Erreportaia hau osatzeko sei sindikaturengana jo dugu eta beste hainbeste galdera egin dizkiegu. Hona hemen bakoitzak esandakoa.

- Nola aldatu da langile mugimendua azken hogeit urteetan?
- Zeintzuk dira egungo langileen aldarrikapen nagusiak?

- CCOO, UGT eta patronalaren arteko akordio berriaren balorazioa.
- Zer nolako eragina izan du ELA eta LABen arteko elkarlanak langile mugimenduarengan?
- Aldi Baterako Lan Enpresen balorazioa.

Sindikatu handiek sistema sendotzen dute

- Orain hogeit urteko egoera eta egungoaren artean oso antzekotasun gutxi daude. Orduko hartan klandestinitatean geunden, orain berriz ez. Alde negatiboan aipatzekoa da, sindikatuek izaera sozio-politikoak galdu egin dutela. Erakunde handiek, bereziki, errealitate soziala aldatzeko funtzioa alde batera utzi dute eta adabakiak jartzera mugatzen dira; era honetan, sistema bera sendotzen dutelarik.
- Egungo langileen aldarrikapenen artean bi ditugu nagusiki: lan banaketa eta pobrezia eta baztertzeko sozial hazkorren kontra ekitea. Langile mugimendua lana ez dutenengana ere ireki behar ditu begiak.
- Lan erreformaren punturik eztabaidagarriena abiapuntua bera da. Enpresariekin enpatia handia erakusten dute. Akordio honekin kanporatze objektiboaren aukera zabaldu egiten da patronalari lana erraztuz. Une berean, auzitegiatara ez jotzeko joera orokortu nahi da. Hau arriskutsua da, langile eta enpresarien arteko harremanak orekatzeko aukera galtzen delako.
- ELA eta LAB sindikatuaren arteko lankidetzatik ondorioztatu den mapa sindikalak ez du operatibitatekerik egunerokotasunean. Gai handietan bi bloke daude baina enpresa txikietan, LAB izan ezik, beste hiru sindikatuak bat datoz gehienetan. Beraz, elkartze hau sindikalismoan baino gehiago ideologia abertzalean oinarritutakoa da.
- Aldi Baterako Lan Enpresen gaian bat gatzoz guztiok. Lan erreforma berriak mugak jarri nahi dizkie oso eragin ezkorra izaten ari direlako. Patronala bera ere enpresa hauei eman zitzaizkien erraztasunez damutzen ari omen da, langileek produkzioarekiko identifikazioa galdu eta, zenbaitetan, konpetentzia desleiala ekarri baitute.



Sindikatu erreformistek patronalarekin eta politikoekin bat egin dute



- Langile mugimendua Araban 60. hamarkadan hasi zen Gasteiz eta Aiara aldeko garapen industrialarekin batera. Hasieran, klandestinitatean, bi eskakizun ziren nagusi: eskubide sozialak eta eskubide demokratikoak.
- Estatu Espainiarrean egin zen erreformarekin, sindikatu erreformistek zioten sindikalizazio politikak alde batera utzi behar zela. Gero, Gobernuarekin eta patronalarekin izandako itunek izugarritzko murrizketak ekarri dizkie langileei. Duela 20 urte orain baino jende gutxiago mugitzen zen, baina orain sindikatu erreformistak dira patronalaren eta botere politikoaren aliatu nagusiak.
- Lan ihardunaldiaren murrizketa, alde aurretiko jubilazioa eskubide guztiak gordez, ordu estrekin amaitu eta borondatezko lan banaketa dira egungo aldarrikapen nagusiak.
- CCOO eta UGTk patronalarekin izandako 'negozio' hauetatik ez genuen ezer onik espero. Patronalak eskubide zabalak lortu ditu edozein gauza egiteko eta ez dute inolako konpromezurik hartu. Beraz, prekarizazioa zabalduko da, hemendik aurrera kanporatzea merkeagoa izango baita.
- ELA eta LABen arteko elkarlana oso positiboa izan da euskal langilegoarentzat. Alde batetik, "Lan-Harremanean Euskal Markoa" beharrezkoa dela erakutsi du. Euskal Herrian gure lanbaldintzak negoziatzeko eskubidea dugu. CCOO eta UGTk negoziaketak hauek Madrilen egin behar direla diote, baina gure ustez negoziaketak deszentralizatu behar dira.
- Aldi Baterako Lan Enpresak langile-merkataritza egiteko era berria da, non langileak egungo eskubak diren. Ez dute enplegurik sortzen, langileon lanbaldintzak txartzen dituzte eta desagertarazi behar ditugu.



HEGOALDE
euskaltegia

ZURE EGOITZA BERRIA
Jose Lejarreta 9 behe
tfnoa 28 41 96
01003 GASTEIZ

**matrikula
zaitez!**



**Portal
del
Rey 9**

GASTEIZ

Batasun sindikal soila defendatzen dugu

• Orain 20 urte oso sindikalismo erreibindikatioa zen, hutsetik hasi behar baitzen. Orduan, orain baino afiliatu gutxiagorekin baina, aldi berean, konpromezu maila handiagoarekin. Ordutik hona, joku-arau demokratikoagoak finkatu dira eta hau onerako izan da.

• Araban dauzkagun aldarrikapen nagusiak bi dira: enplegua eta herrialde honetan geldituta dauden hitzarmen kolektiboak bultzatzea (metal, komertzio, eraikuntza sektoreetan, besteak beste). Halaber, ELAk LABekin duen lotura salatuko dugu. Ez gatoz bat batasun politikoarekin, batasun sindikala defendatzen dugu.

• CCOO eta UGTk patronalarekin lortutako akordioak hiru atal ditu nagusiki: Hitzarmenik ez duten langileentzako akordioa eratu, hitzarmen kolektiborako aurrebaldintza batzuk finkatu eta iraunkortasuna bultzatzea kontratu berria sortu. Honako hau ez da enplegua sortzeko bitarteko bat. Patronalaren eta Gobernuaren eskuetan beste tresna bat gehiago jarri dugu, ondo erabilita egonkortasun handiagoa ekar dezakeena.

• ELA eta LABen arteko akordioak erakunde publiko mailan eragin handia izan du. ELA, CCOO eta UGT batera gentozenean ondo ari ginen sektore honetan. ELA aldentzean eta LAB arlo publikora sartzean egoera erabat gelditu da, bi sindikatu hauen jarrera CCOO eta UGT baztertea besterik ez baita. Hala ere, hitzarmen kolektiboan ez da ikusten ELA eta LAB bat datozenik.

• Aldi Baterako Lan Enpresek oso eragin ezkorra izan dute lan merkatuan. Horien ondorioz lehen, bigarren eta erregional mailako langileak daude. Zentzu honetan, langile hauen baldintzak hobetzen saiatzen ari gara eta 2000. urterako enpresa hauen bitartez kontratatutako langileek beren sektorerako hitzartutako lanordaina jasoko dute eta lantokiko ordezkaririk ezin izango diren erakundeak ere izango dira.



Euskal Herrian euskal sindikalismoa nagusi dela agerian utzi du elkarlanak



• Trantsiziotik ateratzeko Arabako langile mugimendua banatuta zegoen. Sindikatu horiek ez zuten indarrik eta langileak talde politikoaren inguruan bilduta zeuden. Legalizatutakoan, sigla-sorta anitza sortu zen baina laupabost urte igaro eta gero hauetariko askok indarra galdu zuten eta langile mugimendua egun geratzen diren klase-sindikatu historikoetan zehaztu zen.

• Egun gure erreibindikazio nagusiak kalitatezko enplegua, ongizate-estatua eta Lan Harremanetarako Euskal Markoa dira.

• CCOO, UGT eta patronalak sinatutako lan erreforma honek aldaketa ekarriko du sindikatu eta Estatuaren arteko harremanetan. Sindikalismo espainiarra onartu egin du langilea produkzio prozesuaren bitarteko bat besterik ez dela, langilearen babesa enplegu-kalitatearen arloan bertan behera utzi. Etorkizunean, Espainiako sindikatuek ez diote gogor ekingo langileen defentsari, diskurtso liberala bereganatu baitute.

• ELA eta LABen arteko elkarlanak ondorio garrantzitsu bat izan du: Euskal Herrian euskal sindikalismoa nagusi dela agerian uztea. Honen bitartez, argi gelditzen ari da Lan Harremanetarako Euskal Marko baten beharra. Bestalde, Ezker Abertzalearen (MLNV) barruan ez dagoen ELA bezalako sindikatu bat amankomuneko esparruen bila aritzeak adierazten du egungo egoerari elkarriketaren bitartez irtenbidea aurki dakiokeela.

• Aldi Baterako Lan Enpresek langileen egoera are gehiago prekarizatu dute. Sistemak eraginkortasuna, lehiakortasuna eta kontzeptu hauen inguruko logika onartarazten dio gizarteari, era horretan langileen eskubideak murrizteko. Hori ez da horrela, aukera ideologiko-politikoak da eta borroka sindikalaren bidez aurre egin behar diogu.

ELA eta LABen akordioak ez du eraginik Araban

CC.OO.

• Orain 20 urte, Langile Mugimendua oso gaztea zen, Araban industrializazioa 60ko hamarkadan heldu baitzen. Ez zegoen sindikatzeo askatasunik. Beraz, langileen erreibindikazioekin batera askatasuna, elkartzeo eskubidea, e.a. aldarrikatzen ziren. Egun, egoera hori gainditu da. Azpimarragarri deritzogun lorpena negozioazio kolektiboarena da, langileen behar eta erreibindikazioak bideratzeko ezinbestekoa dena.

• Egun egoera hori gainditu da. Azpimarragarri deritzogun lorpena negozioazio kolektiboarena da, langileek behar eta erreibindikazioak bideratzeko ezinbestekoa dena.

• CCOO, UGT eta patronalaren artean lortutakoa ez da akordio magikoa, baina baditu hiru helburu nagusi: lor daitekeen enpleguaren kalitatea hobetzea, Estatu mailan galdutako zenbait eskubide berreskuratzea eta eskubiderik gabe gelditu diren 22 sektore eta azpi-sektoreentzako hitzarmen-markoa sortzea.

• ELA eta LABen arteko akordioak ez du apenas eraginik izan Araban, bertako negozioazio kolektiboari dagokionez. Bi sindikatu hauek, orokorrean, ez dute Araban konbenioak sinatzeko gehiengorik eta hiru sindikaturen oneritzia beharrezkoa da.

• Aldi Baterako Lan Enpresek prekaritate gehiago ekarri dute. Orain, patronalarekin lortutako akordioari esker langile horien lanbaldintzak hobetu ahal izango dira, alor bereko beste langileen parekoak izango direlako. Azken puntu hori datorren urtetik aurrera gauzatuko da.

Aldi baterako Lan Enpresak esklabutza berria dira

**esk
cuis**

• Orain hogei bat urte, langileek organizaziorako gaitasun handiagoa zuten. Enpresarien jokaera gatazkatsua zen. Petrolioaren krisiarekin batera aro berri bat ireki zen, merkatuaren legea eta neoliberalismoa nagusituz.

• Sindikatu handiek gatazka soziala paktu sozialera eraman eta mobilizazioekin amaitu dute.

• Gehiengo dute CCOO eta UGT sindikatuek aukera aparta galdu dute. Patronalak ikusi du gero eta kontsumo gutxiago dagoela eta frogatua geratu da aldi baterako kontratuak ekonomia suspertzeko nahikoak ez direla. Lan kontratu iraunkorrak behar dituzte eta bi sindikatu hauek ziria sartu diete kanporatzeko erreztasun gehiago lortuz.

• ELA eta LABen arteko akordioa lan harremanetarako euskal markoaren bila dabil, CCOO eta UGT oso zentralistak zirela ikusten zutelako eta beste sindikatuek ahaztu egiten zirelako. Frentismo horrek langile mugimenduaren ahultasuna ekarri du. Baina nori bota behar zaio horren errua? Gure ustez, sindikatu estatalistek erru handiagoa daukate, hemengo egoera soziala ezberdina direla ez baitute onartzen.

• Aldi Baterako Lan Enpresak XX. mendeko esklabutza berria dira. Erabat gaitzesten ditugu eta sindikatuek indar gehiago jarri beharko genuke horiekin amaitzeko. Zenbait gaitzesten dituzte baina gero ezer gutxi egiten dute orren kontra. Ondorioz, gizar-tean banaketa gertatzen ari da: lan finkoa dutenak eta aldi baterako lana dutenak.

ELKARTASUNA

**GUATEMALA
NICARAGUA
MEXICO
CUBA**



INFORMAZIOA
Arratsaldeko 8etatik 10etara
28 11 93 GASTEIZ



BRIGADAK 1 9 9 7

*joan-etorriko
elkartasuna*

KI
KOMITE
INTERNACIONALISTAK

**BRIGADAS DE SOLIDARIDAD
INTERNACIONALISTA.**

geu gasteiz
irolak

ARTURO IGORAIN
SIVORI

"Mendizorrotzan gol bat egitea dut amets"



Arturo Igoain
ditu izen eta lehen
deiturak, baina Alaveszale
guztioak Sivori ezizenez
ezagutzen dugu: gasteiztarra,
aurrelari fina, eskalduna...
Alaveszaleok ez al dugu
horrelakorik behar
Mendizorrotzan? Taldea
kili-kolo dabilen honetan,
Deportivo Alavesek ez du
urrutira joan behar golegile
baten bila: etxean dauka,
gaztea da, eta Hirugarren
Mailako taldearekin 13 gol
egin ditu aurten. Sivori
aurkeraren zain dago eta gu,
irrikitan, Aranakoa zelaian
ikusteko.



Igorain abizena duzu, nongoa da Igorain?

Etxeko guztiak aurrelariak?

Arabarra da. Hemengoak gara,
Gasteizkoak.

Ez, nire aitak zelai erdian ere jokatzen
zuen.

Eta Sivori ezizena?

Nire aita jokalaria zen
garaian, Sivori izeneko
jokalaria italiar bat omen
zegoen Juventus taldean.
Antza, zelaian berdintsuak
ziren eta Sivori izenez
bataiatu zuten aita. Arana
auzoko Andaluzia kalean
dugun tabernak ere Sivori du
izena eta, noski, baita nire
anaia eta biok ere.

geu gasteiz

"Deportivo
Alavesek golak
egin ditzadan
kontratatu egin
nau"

geu gasteiz

Gasteiztarra, aurrelaria,
eskalduna... Horrelakoak
gehiago nahi ditugu General
zaharreko Alaveszaleok.

Itxaron egin beharko dugu, ni
ere horren zain nago. Dena
den, gaztea naiz oraindik.

Ronaldo ere gaztea da...

Bai, baina Ronaldorena
bestelakoa da, Ronaldo

K2
KIROLDEGIA
CENTRO DEPORTIVO
C/COMANDANTE IZARDUY, 18 T.FNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista
arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko
aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrun-
bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-
gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta
amerikarrear iharduteko mahaiak • Ping-pong mahaiak

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-
girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



bezalakoak gutxi daude. Horiek izarrak dira, eta gainerakoak langileak gara.

Zure etxean guztiak futbolariak izanik, zer dio amak?

Futbolaz ezer gutxi daki amak, je-je...

Eta telebista piztean, nork irabazten du futbolak ala gaueko pelikulak?

Futbolak, futbolak.

Ama pozik egongo da ba...

Jasan egin behar. Bi telebista ditugunez, bestea ikusten du.

Ronaldo edo Kodro?

Kodro.

Kodro! Zergatik? Ez dago konparatzerik, Ronaldo onena da...

Bai, baina betidanik gehiago gustatu zait Kodro. Donostian egon zenean, 28 gol egin zituen. Ez ahaztu

hori! Gola egiteko prest dago beti.

Eta zu nolako jokalaria zara?

Kaskarra naiz. Gola egiteko badakit non egon behar dudan, eta zortea ere nire alde agertzen da. Badakit golak sartzen.

Eta Marcelok (Alaveseko aurrelari portugaldarra) badaki golak egiten?

Bai, jakina. - erantzuten du S i v o r i k irribarretsu-.

Oraindik ez du gol bakarra ere egin...

Horixe, zorte txarra! Nik berarekin entrenatzen dut, eta lan izugarria egiten duela ziurtatzen dizut. Baina aurrelariak bolada onak eta txarrak izaten dituzte.

Bai, hori horrela da, baina Sivori badugu, zertarako behar dugu Marcelo?

Je, je... Nik ezin dut hori esan, geroak du hitza.

XXI. MENDERARTE

2.000. urtera arte Alaves talderekin kontratua sinatua du eta bere klausula ez da huskeria. Beste talde batek fitxatu nahi izanez gero, 350 milioi ordaindu behar dizkio

Alavesi.

Ez zara merkea, motel!

Ez dut hori balio. Futbola horrela dago egun, baina nik ez dut edaten ari garen kafe ebaki hau ere balio.

Alabaina, etorkizunean hori eta gehiago balio dezakezu...

geu gasteiz

"Etxean ez dut futbolari buruz hitz egiteko ohiturarik"

geu gasteiz

Hori erakutsi behar dut. Deportivo Alavesek golak sartzeko kontratatu nau eta horixe egin behar dut nik.

Nor da zure ordezkaria arazo ekonomikoak konpontzeko?

Iñaki Espizua. Berak ekarri ninduen Alavesera Aranbizkarran jokatzeko nuenean.

Futbola zure bizimodua bada ere, ez dituzu ikasketak utzi...

Ikasi beharra dago. Demagun lesio larriren bat izaten dudala, orduan inor ez da nitaz gogoratuko.

Non gustatuko litzaizuke gol bat egitea?

Ezbairik gabe, txiripaz izan arren, Mendizorrotzan, Alaves handiarekin.

Alaveszalea izateaz gain, beste talderen bat...

Kirolak

Niretzat ez dago besterik, Deportivo Alaves bakarrik.

Zure etxean askotan hitz egingo duzue futbolari buruz.

Ezer ez. Etxean ezer ere ez. Ez dut gogoko futbolari buruz etxean hitz egitea, hala ere, telebistako partiduetan ikusten ditugu: "Gaur norgehiagoka daukat", "Banoa entrenamendura"... ez dut besterik esaten etxean.

Futbolaz eta ikasteaz gain, zerbait gehiago izango duzu gogoko?

Emakumeak

Orain Kutxitik lasai asko ibil zaitezke, baina agian hemendik gutxira neskek ez zaituzte pakean utziko...

Hala bedi. Neskek entzungo ahal dizute! Hala ere, txantxak alde batera utzita, ez dago amets egiterik, oraingoz Hirugarren Mailako taldean nago. Lehen esan dizudan bezala, biharkoa bihar.

Harrobia hizpide dugu Alaveszaleok askotan, baina Hirugarren Mailako Alaves Aficionados ikustera lau katu joaten dira...

Senitartekoak eta lagunak. Ibaian lagun gehiago ikustea nahi genuke, hots, Alaveszaleek guk egindako lana aintzakotzat hartzea.

Ismael Diaz de Mendibil

EL BAR Kutxi

e g u n e k o m e n u a

ONGI ETORRI

xurrut

KUTXI 103 GASTEIZ

ALISAS

TABERNA

KUTXI 591

Igor eta Alvaro
Glez. de Galdeano

TXIRRINDULARIAK

EUSKADI taldea



Aupa lagunak:

Euskadi taldearen sorrera eta funtzionamenduaren berri eman nahi dizuegu labur-labur lerro hauen bidez. Fundazioan 1995ean sartu ginen gu biok, hau da, taldeak urte bat errepideetan zeramanean. Dakizuenez, Euskadin zaletasun handia dago eta gure artean oso txirrindulari onak dauzkagula kontuan izanda, Miguel Madariaga lehendakariak eta beste lankide batzuek euskal txirrindulariz osatutako talde bat egitea pentsatu zuten. Horrela jaio zen Euskadi taldea.

Hasierako uneak eta ondorengoak ere ez dira errazak izan, gurea ez baita beste taldeak bezalakoa. Lortu diren bazkideei esker bizi gara eta hemendik eskertu nahi dizuegu laguntza eman duzuen guzti-

guztioi.

Normala denez, proiektu honek noiz arte iraungo duen galdetuko diozue zeuon buruari. Ezin dugu erantzunik eman, baina honako hau garbi daukagu: gure esku dagoen guztia egingo dugu ekimen polit honek aurrera egin dezan. Oso harro gaude gu horrelako proiektu batean parte hartzeagatik.

Kirol arloan, lehenengo urtetik oraino, gure pausuak jarraitu badituzue, konturatuko zineten bilakaera ona izan dela, hobetu egin dugula, eta espero dugu bide horretan jarraitzea.

Bukatzeko Geu Gasteiz aldizkariako irakurleoi eskerrak eman eta agur bero bat bidaltzen dizuegu.

Zuen lagunak

Berri motzak...

ESTIBALITZEK GIMNASIA UTZI

Estibalitz Martinez gimnasta arabarrak puntako kirola utzi behar zuela iragartzen zuen Apirilaren 18an. Atlantako Olinpiadetan urrezko domina bereganatu ondoren, belauneko bi ebakuntza egin behar izan dizkiote Estibalitzi. Belauneko gaitzak eta nekeak (psikologikoa batez ere) zerikusirik izan dute erabakia hartzeko orduan; horrela, munduko gimnastarik onenetariko bat den Estibalitz Martinezek agur esaten dio goi-mailako gimnasiari.

AURRERA 'PLAY-OFF'-ETAN

Aurrera de Vitoria Bigarren A Mailara igotzeko play-offetan murgilduta egongo da datozen asteotan. Olaranbeko taldeak Araban futbolari onak ditugula erakutsi du beste behin ere. Igotzea ametsa den arren, Blas Ziarretaren aginduetara dauden gizonak hori lortzen saiatuko dira. Haiek merezitako kirol tarte eskaini nahian, datorren hilean beren berri izango duzue orrialdeotan.

IBARRA ANAIEN ESKOLA

Olabe frontoi gasteiztarrean Euskal Herriko zesta punta eskolarik onenetariko bat dugu, Ibarra anaiena alegia. Bertan Konpak eman zituen lehen pilotakadak, Bernedokoa ez da ikasle bakarra izan, ordea, bere atzetik beste gazte batzuk indartsu baitatoz, Inziarte edota Alava pilotariak kasu.

ARABAKO TXIRRINDULARITZA ITZULIA

Arabako Itzulia uztailean izango da azkenik. Antolatzaileek lasterketa egiteko egunak aldatu dituzte, orain arte apirilean izaten baitzen. Ezustekorik gertatzen ez bada, eguraldi ona izango dute lagun, ea aldaketa onurarakoa den.



ZAHAR SENDO ZINDO

GASTEIZKO BALDUK

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

Hogeita bederatzi urteko musikari gaztea eta esperietziaduna dugu Triku. Lau disko ditu Korroskadarekin, Bizkar Hezurrarekin hirugarrena prestatzen ari da, eta hori guztia gutxi balitz, orain buru-belarri, Gasteizko Betagarri taldearen produkzio lanetan sartuta dago.



usika

Azken urteetan Euskal Herrian egin den musikaren lekuko nagusienetako bat dugu Triku. Berarekin euskal rockaren bilakaeraz egin genuen berba. Bide batez, bere karrera musikari errepasso labur bat emateko aukera izan dugu. Hauxe esan digu.

lehen, oraina eta geroa Euskal Herriko 'rock n roll'-ean

Zertan ari zara une hone-tan?

Orain Bizkar Hezurraren hirugarren diskoa prestatzen ari gara, abestiak bukatu, borobil-du... Udan aurkeztu nahi genuke, hori zen hasierako asmoa, baina badirudi atzeratu egingo

zaigula eta Durangoko Azokarako utzi beharko dugula. "Ikuskizunaren Gizartea" izango du izenburutzat eta hamabi abestik osatuko dute diskoa.

Produktore lanetan murgilduta zaudela entzun dut...

Bai, egia da. Irailean, Betagarri taldeak galdetu zidan beren azken diskoa produzitu nahi nuen. Nire musika ibilbidean beste urrats bat gehiago izango zela pentsatu nuen eta Betagarrikoei baietz erantzun nien, egingo nuela, gustora egin ere. Talde indartsua da Betagarri,

erakargarria, oso berezia nire ustez. Nahiz eta musikari oso onak ez izan, freskotasunez beterik daude. Orain gutxi bukatu dugu diskoaren moldaketa eta ni pozik nago emaitzaz.

Korroskada tutik esan gabe desagertu zen.



Bai, gure heldutasun ezagatik gertatu zen horrela. Arazoren bat edo beste izan genuen taldekook: batek hau egin nahi zuen, bete batek hura..., eta piskanaka-piskanaka ska-tik aldendu egin ginen. Bestalde, oso gogor hasi ginen eta lortutakoari eustea zaila egin zitzaigun. Jendeak zer entzun nahi duen, hura eskatzen du eta guri ska eta dantza eskatzen ziguten. Guk, ordea, ez genuen aintzakotzat hartu jendearen nahia eta, ondorioz, baztertu gintuzten. Badakizu, zu ahaztu eta gustoko beste talde bat topatzen dute. Hori gertatzea logikoa da. Geroago saiatu ginen zer edo zer egiten. Hiru edo lau kontzertu eskaintza jaso genituen Katalunian baina ez genituen gauzatu. Horrela bukatu zen Korroskada.

Eta Korroskada desagertu ondoren, zer egin zenuen?

Bizkar Hezurra heldu zen. Korroskadak euskara eta erdara erabiltzen zituen eta nik euskara hutsean egin nahi nuen zerbait, euskalduna sentitzen naizelako. Ordurako banuen zenbait testu idatzita eta Bizkar Hezurra ize-narekin sinatzen nituen. Testu horiek kanporatzeko parada iritsi zitzaidanean ez nuen aukera hori alperrik galdu.



Bizkar Hezurra espe- rientzia kontutan hartuz, batek pentsa dezake eus- kal supertaldea zaretela.

Egia esan, ez zen hori gure asmoa. Goar eta biok lagunmi-nak garenez eta elkarrekin zer-bait egin nahi genuenez, bateria eta baxujole baten bila hasi ginen. Euskal Herriko rock 'n rolletik kanpora zegoen musi-karia nahi genuen bateria jotze-ko. Pastirekin harremanetan jarri ginen, maketa eman genion, berak ent-zun eta gustoko izan zuen. Baietz esan zigun.

Baxuarekin ihardutzeko iruñear bat bage-nuen, baina honek, azken orduan, ezin zuela erantzun zigun. Horretan genbiltzala, Kaki Arkarazorekin gure asmoaz hitz egiten ari ginen egun batean, Mikel Irazokiri deitzeko gomendatu zigun. Hura ados zegoen eta gu ezin gustorago. Diskoa grabatu eta aurrera!.

Zaila al da taldea elkartzea?

Bai zaila da laurok elkartzea. Izan ere, bi Gasteizen bizi gara, bat Madrilen eta bestea Beran. Hori izan daiteke Bizkar Hezurra bereizten duen ezaugarrietako bat. Ez gara elkarrekin egoten, ez dugu kontzertu ugari zertzen. Baina, beno, taldea aurrera doa.

Euskal Herriitik kanpora ateratzea ere gaitza da, ezta?

Bai, baina oso zaila den arren hori da gure nahia. Laster IZ argitaletxea utziko dugu. Eurek ez dute espero zuten salmenta lortu, eta guk gure musika zabaltzea nahi dugu. Ez dakit zer egingo dugun, ezta nora joko dugun ere, baina saiaturako gara kanpora ateratzen.

Euskal Herrian rock 'n rollak diru- rik...

Ezin da musikaz bizi Euskal Herrian. Zorte handiarekin eta disko arrakastatsuekin hiru edo lau urte eman dezakezu musikari lotuta, baina, azkenean, beste lanbide bat bilatu



behar duzu aurrera egiteko. Saren kasua ezberdina da. Onartu dituzte Estatuan eta gainera bere produktora sortu dute: Mil A Gritos izenekoa. Azkar-rak dira eta, ze arraio! Merezi dute lortutakoa.

Gaur egun Euskal Herrian musikari trebe asko baina abesti gutxi.

Bai, halaxe da. Abesti onen falta nabarmena da. Errobik, La

Pollak, Barrikadak edo Hertzainak oso abesti onak egin zituzten, mugak eta molde-ak apurtzeaz gain. Baina gero ohitu egin ginen eta freskotasuna desagertzen hasi zen. Bai abestiak falta dira! Abesti onak eta fres-koak. Dena dela, honako arazo hau ez da Euskal Herrian bakarrik gertatzen, beste tokietan ere antzera dabilta.

Abeslari onak ditugu Euskal Herrian?

Batzuk badaude, baina ez asko. Garik ondo betetzen du bere lana, J.C. Perezek eta Aitor Gorosabelek ere bai... Hala ere, aparteko kantari bat badugu: Ruper Ordorika.

Eta azpiegituraren aldetik, zer alda- tu da azkenengo urte hauetan ?

Ezer gutxi. Gaur egun, oraindik desastrea da. Lehen ez zegoen baliabide handirik, baina egun oraindik ez dira batere hobetu: ekipo txarrak eskeintzen dizkigute, gurdi baten gai-nean jo behar dute zenbait taldek. Eta fron-toiak? Zer esan frontoiez? Pilotan jolasteko direla eta ez kontzertuak antolatzeke. Talde pila, baina azpiegitura urria dago.

Eskaintza musikala zabala da Euskal Herrian?

Bai, Donostiak badauka bere estiloa, Bilbok berea... Baina, beharbada, Euskal Herriko talde gehienak musika gogorrean aritzen dira.



Arte Ederre

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak

oleoak

akwarela

pintzelak

ikatzkiloak

kaballereak

lientzoak

olioak

etabaz

%10a
gutxiago

Arriaga
euskalgintza, s.l.

500 METRO KARRATU
PAPERGINTZA, INFORMATIKA
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

San Anton Plaza 7-8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12
Billegia: Urtiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14



HegoAmerikako
jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52



Gure rocka ez da azkarregi garatu?

Bai, oso azkar gabilta. Agian oinarriak hobeto prestatu beharko genituzke, lasaiago eraiki gure musikaren historia. Orain, badi-rudi gazteenek lehengo taldeei begiratzen dietela: Eskorbuto, Tijuana edo Potato adibidez. Jakin behar dugu nondik gatozen eta nora goazen.

Azkeneko aldiz zein kontzertu entzun zenuen?

Los Ronaldos.

Erosi duzun azken diskoa eta flipaturik utzi dizuna?

Hechos contra el Decororena eta Juan Perrorena. Baina ni musikazalea naiz, arlo guztietara heltzea dut gustoko.

Eric Clapton ikustera joango al zara?

Bai, ikusi eta entzun. Jakina !.

Txabi Arnal Gil

GAURKOAK ETA BETIKOAK (Kritika)

The Clash 'London Calling'

Riva Music. 1979.

1979. urtearen amaieran argitatu zen arren, The Clash taldearen hirugarren iraupen luzekoa 80ko hamarkadakotzat jo izan dugu beti. Baina, zergatik? Zer izkutatzen zuen Londreseko deialdi honek? Zergatik 80ekoa?. Zein zen bere benetako garrantzi musikala?. Berari zegokion 70 eta 80ko hamarkaden arteko muga kokatzea? BAI.

Gertakizun ugari izan ziren munduan 70eko azken urteetan eta musika, jakina!, ez zen aparte bizi. Gero eta larriagoa zen krisialdiak rock 'n rollari ere ederki eragin zion. Rock sinfonikoak, esperimentalak, aspergarriak bereganatuta zeuzkan gazte (eta hain gazteak ez ziren) askoren belarriak. Hala ere, -eta zorionez!- gogaiturik zeudenak ez ziren gelditu, eta barnean zeukaten gorrotoa oinarritzko rock 'n rollaren bidez kanporatzen saiatu ziren. Betiko rocka zen, bai, baino inoiz baino indar handiagoarekin.

Ileak gora, larruzko txupa beltzak, kamiseta eta praka urratuak, mendebaldeko gizarte hura borrokatzen zuten hitzak, (ezer gutxi eskaintzen zuten beste askok), dena salgai, eta kitto! Punk mugimendua sortuta genuen.

Jaioberria, eta berehala hil zorian. Heroinak, sistemak eta punk-ak berak laster lapurtu zitoten jatorrizko sendotasuna anarkia aldarrikatzen zuen mugimenduari. Sex Pistols taldea atzealdeko atetik desagertu ondoren, itxaropena The Clash tal-



dekideengan jarri zuten jarraitzaile punkiek. Eta The Clash-ekoek ez zieten hutsik egin: bi lan zoragarri kaleratu ondoren zaila zuten lortutako mailari eustea. Hala ere, gainditu ere gainditu egin zuten.

London Calling disko bikaina eta rock 'n rollaren historian garrantzitsuenetarikoa bat da. Aurrera egindako urratsa? Beharbada, bai. Baina, zer da inportanteagoa, rocka berritzea ala disko bateko abesti guztiak bikainak izatea? Guk bigarrenaren alde egiten dugu, gure ustez horretantxe dago London Callingen egiazko xarmantak. Hitz batez: disko borobila aurkeztzen ari garen hau.

Hemen topatuko duzu rock 'n rollik bikainena ("London Calling", "Hateful" edota "Four Horsemen" abestietan), skarik alaiena ("Rudie Can't Fail", "Wrong 'em Boyo"), reggae zuzirik beltzena ("Revolution Rock") eta Pop sendoena ("Lost in the Supermarket").

Bukatzeke, abesti bat opari ("Train in Vain. Diskoko onena?) eta iraupen bikoitzeko lana prezio arruntan.

Etxean duzula? Banekien.

Txabi Arnal Gil

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
23 00 68 GASTEIZ

J A T E T X E A

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



printze urdina ageri!

Lorea Zurimendi

Mendeak igaro ahala, gizartearen balio estetikoak aldatuz joan dira. Aro bakoitzean ezaugarri ezberdinak hobetsi dira. Esate baterako XVIII. mendeko Frantzian zurbil baino zurbilago egotea goimailako jendearen adiezagarri preziatua zen. Gaur egun, guztiz alderantziz gertatzen da: kubatar baten moduko azal kolorea eduki behar duzu zerbaite ligatu ahal izateko. Beraz, gure buruari zera galdetu diogu, nolakoak izango dira gure mostrongotxoek kuttunak? Igela musukatuz gero, zein nolako printze-printzesak agertuko lirateke? Zer dago modan altua, txiroa, eroa, adin ertainekoa, beltzarana, sudurruzea, uruguiarra, suediarra, ala azkarra izatea? Nola erantzungo ditugu galdera serio eta garrantzitsu hauek? Guk badaezpada, Marianistas-eko ikasleengana jo dugu printze/printzesa urdinez beren ueste apalak eta ametsak azaldu diezaizkiguten.



HAUEK dira, besteak beste, nire printze urdinaren ezaugarriak: ile horia, nire adinekoa, begi urdinak, oinetako ez oso garestiak -ezta markakoak ere-, altua, nahiko diruduna eta kirolaria. Ni maitatu behar nau, baina ez polita naizelako, jatorra naizelako baizik. Eta garrantzitsuena zera da: niri "adarrak" ez jartzea.

Lucia, 11 urte

NIRI mutil jatorrak eta politikak gustatzen zaizkit. Halere, mutil polit bat jatorra izatea zaila da.

Raquel P., 11 urte

NIRE ametsetako neskatoak oso polita izan behar du. Neska horri gauza bat bakarrik eskatzen diot: diru asko edukitzea. Jantzerari dagokionez ez daukat inolako lehentasunik baina, hori bai, lehenbailehen etorri behar

du, bestela beste neska batekin konformatuko naiz.

Ibon, 11 urte

NIRE printzesak arrautza frijituak prestatu beharko dizkit.

Aitor, 10 urte

NIRE kuttuna hamar urtekoa da, handi samarra eta beti txandala jantzen du. Bere etxea eskolatik 50 metrotara dago.

Oier, 10 urte

MIKO
izozkiak

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
2errikoia

MIKEL
DELIKA

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 14 64 10
GASTEIZ



X edorta sanz

NIRE iritzian, mutilak jatorra eta polita izan behar du. Ez da "matxista" izango eta ezta gezurtia ere. Britainia Handikoa izango balitz hobe, ingelesa ikasten ari bainaiz.

Maite C., 10 urte

AMETSETAKO mutil horrek, maitakorra, eskuzabala eta gihartsua izateaz gain, etxean laguntzeko prest egon behar du. Eta beste ezaugarri garrantzitsu bat bete beharko du: ez du beti telebistan futbola ikusiko.

Idoia, 10 urte

IGELETIK sortutako printze horrek, lanpostu ona edukitzeaz gain, ingelesa izan behar du. Eta Tom Cruise-ren antza baldin badauka hobe.

Vanessa, 11 urte

NIK Pamela Anderson-ekin konformatuko nintzateke.

Endika, 11 urte
Bere gurasoak dirudunak izateaz gain, nire gustokoa izateko Ferrari eta Limousin autoak eduki beharko lituzke. Mikel, 10 urte
Diruaren kontuak ez nau arduratzen baina nire mutikoaren izena Xz hastea nahiko nuke.

Maria, 11 urte

LETICIA Savater-en kontrakoa izan behar du.

Diego, 11 urte



X c.a.

MUTIL beltzarana, garbia eta ondo usaintzen duena izango litzateke nire printze urdina.

Emma, 10 urte

BEGI marroïdun neska, oso jatorra, ondo jantzia eta oso lagunkoia da. Egun batean pulsera bat oparitu nahi nion, baino ez zuela onartuko pentsatu eta gorde egin nuen.

Aitor A., 11 urte

NIRE printzesa urdina honako ezaugarri horrituta egongo da: gorputz miresgarria, jatorra, errubioa, ile eta hanka luzekoa, Claudia Schiffer-en antza duena, ondo jantzen dena, eskuzabala, sentikorra eta,

azkenez, umeen eta filmeen zalea.

Urtzi, 11 urte

NIRE bihotzeko aingeruak altua, argala, eta titi handiko neska izan behar du. 19 urtetako neska aberats honek, ile beltzeko buru borobila edukiko du.

Oscar, 11 urte

PERTSONA batekin maitemintzeko eskatzen ditudan ezaugarriak hauek dira: altua izatea, begi marroïak, aberatsa, aktorea izatea, hanka politak eta luzeak, sudurra ez hain handia eta ile horixkaduna.

Gerardo, 10 urte

NESKATO horrek ipurdi handia, ile marroïa, eta ezpain goxo-goxoak izan behar ditu. Ez nuke nahi bere gorputzeko atalen batean silikonarik edukitzea. Honelako ezaugarriekin hori bai izango litzatekeela nire printzesa urdina, berdea, gorria edo edozein koloretakoa!

Ander G., 11 urte



Modeloa: F. Narváez "Kiko" Traffic betaurrekoekin Ref.: TF 950465

Eguzkitako moda modazko jendearentzat

Merkatuko eguzki betaurrekorik eksklusiboenak
Mendia Optikan, beste inon ez dituzu aurkituko.



Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ





-BERTSOALDIA 97-

Malatzak 20 Asteartea
20:00etan Villa Suson

BERTSOLARITZAREN "TRANPAK":
Zer dago bertso baten atzean?

Xabier Amuritza
Iñaki Murua



Malatzak 21, Asteazkena
20:00etan Villa Suson



BERTSO SAIOA
Andoni Egaña
Jon Sarasua



Malatzak 27 Asteartea
20:00etan Villa Suson



AURREKO SAIOKO
JOKALDIRIK ONENAK
Andoni Egaña eta Jon Sarasuak
Mobiolan komentaturik

Malatzak 28 asteazkena
Eguerdiko 12:00etan Filologian



BERTSO TRAMA:
Jon Maia
Igor Elortza
Josu Goikoetxea (narratzailea)

BERTSOLARITZA
TABERNA ZULOAN:

9etan

- **PARRALEN:**
Maiatzak 28, Asteazkena
- **BAGAREN:**
Maiatzak 29, Osteguna
- **TXUSTAN:**
Maiatzak 30, Ostirala



ANTOLATZAILEA:
Gasteizko
Bertso-Eskola

LAGUNTZAILEAK:
Filologiako Euskara Batzordea,
BAGARE, GEU, GASTEIZ
IRRATIA, AEK, IKA,
HEGOALDE, UDABERRIA

BABESLEAK:
Gasteizko Udala (Kultura Saila)
Arabako Foru Aldundia

GASTEIZKO UDALA



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA ZERBITZU OROKORRAK GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA FUNTZIO PUBLIKOA IDAZKARITZA ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA ERROLDA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 08 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20 16 11 88 16 11 06
BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 16 68 16 11 33 16 11 20
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g ARIZNABARRA, 19	16 17 40 16 16 82 16 17 60 13 36 91
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA) BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			16 36 91



**Z E
E L
R E
B I
B I
T U
Z N
U A
K**